



- **ELA sindikatua** Sozialismoa deitoratzetik langile borrokaren abangoardiara
- **Ye-ye musika** Euskal kantagintza berritu zuen belaunaldia
- **Fermin Erbiti** "Hiru koaderno txiki" literatura saioaz eta kazetaritzaz
- **Iñaki Soto, Gara-ko zuzendaria** «Ildo editorial esplizituarekin eraikitzen da sinesgarritasuna»

MICHEL ETXEBEST MAULEKO AUZAPEZA

«Zuberoan
lehen
problema
bizitzea da»





Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2011ko uztailaren 17a, 2.285. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Miren Gutierrez, Greenpeace:** «Sekula ez dugu izan, ez izango, ezein enpresatako akziorik». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **SOVetik ELAra.** Sindikatu abertzalearen metamorfosia. JOSU CHUECA / 5

Pertsonaia

- **Iñaki Soto:** «Kazetaritza guztia politikoa da». SUSTRAI COLINA / 10

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Bihotzez. JOSÉ LUIS PADRÓN / 16
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Potterren** ekologia. CARMEN VALOIS / 18
- **Txandan** 2016. IGOR ESTANKONA / 18
- **Estatuaren** kohesioa. IXABEL ETXEBERRIA / 19
- **Hiruko txikian** Bi atezain. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Bertso berriak** Euskal berristoria. XABI PAYA / 20

Erdiko kaiera

- **Ye-ye** euskaldunaren historia ahantzia. GOTZON ELIZBURU / 21
- **Fermin Erbiti:** «Primo Leviren antzeko kasuak toki guztietan daude». MIKEL ASURMENDI / 24
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 27
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** UNAI BREA / 31
- **Ihesi Gasteiz.** Itzuli bat Alde Zaharretik. IBAN ZALDUA / 32
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Michel Etxebest:** «Politikan kudeaketa behar da eta demagogia utzi». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Udalen** izenak arau bihurtuta. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Zure pentsioa afrikarrei ostutako lurrek paga lezakete. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Musikaren** neutraltasunaz. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 50



“Sekula ez dugu izan, ez izango, ezein enpresatako akziorik”

Miren Gutierrez | Greenpeacekoa

Espainiako gidaritza eman diote donostiar
kazetari honi.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

“Mundu berde bat eta bakean” lortzeko egiten omen duzue lan. Teletubiak baino ez zaizkizue falta.

Mundu hori bihar lortuko dugula esatea, egia da, inozoa litzateke oso, eta ez sobera praktikoak. Ez gara erromantikoak, anbizio handi-koak baizik.

Ea anbizio handi horiek.

Epe motz eta ertainean: Garoña ixtea, energia garbietan oinarritutako sistema elektrikoa lortzea, kostaldea hormigoiz eta adreiluetatik babestea, negutegi efektua sortzen duten gasak murriztea, transgenikoak baztertzea...

Eta gure erosotasuna, zer?

Deserosoagoa iruditzen zait ekintza ezaren ondorioak borrokatzea. Ordaina dagoeneko ari gara ezagutzen: 2010eko uda azken bostehun urteetako beroena izan zen.

Ados, salba ditzagun baleak hortaz.

Haratago goaz: egia da krisi garaian jendea kontserbadoreagoa dela (ekonomikoki, noski, ez ingurumen gaitan). Eta laguntzak ematen dira, baina okerreko sektoreei.

Argitu bidea, otoi.

Berriztagarrien sektorea, adibidez. Miloi bat lanpostu sortzeko gai da 2020rako.

Baina hemen lanik ez da falta: AHTa, erraustegiak, Superportua...

Superportuak ez du zentzurik, ez ekonomiarik

ez ingurumenari begira. Eta arazorik gabe birziklatu daitezkeen etxeko zaborra erretzeak ere ez du inolako logikarik.

Alarmista hutsak zarete, arrazoi zuen Raxoiren lehengusuak.

Klima aldaketa ukatzen duena edo ezjakina da edo ez du zuhurtziarik. Gaur esan daiteke, ezer egiten ez badugu, hemendik urte batzuetara zer aldaketa gertatuko den.

Aldaketak aldaketa, politikarien ondoan egoitea onena.

Boteretsuengan eragiten saiatzen gara ingurumenaren eta hiritarren alde egin dezaten. Horretarako alderdi guztiekin hitz egin nahi dugu. Baina ez du esan nahi alderdikoiak garenik.

Harreman hobea duzue multinazionalekin?

Denetarik dago. Kasurik egiten ez digutenean beste bide batzuk hartzen ditugu: Mattel, Volkswagen... Eta enpresa batzuekin elkarrizketak ditugu, ingurumenarenganako errespetu handiagoa izan dezaten laguntzeko.

Eta, saldu dituzue dagoeneko Shell petrolio konpainiari erositako akzioak?

Sekula ez dugu izan, ez izango, ezein enpresatako akziorik. Bazkideen ekarpenekin soilik finantzatzen da Greenpeace. Eta ingurumenaren aldeko kanpainak egiteko erabiltzen ditugu eskusiboki ekarpen horiek. ■

SOVtik ELAra

Sindikatu abertzalearen metamorfosisia

1911ko uztailean sortu zen Solidaridad de Obreros Vascos, egun Euskal Langileen Alkartasuna (ELA) izenarekin ezagutzen dena. Sabino Aranaren ideien altzoan sortutako sindikatuak klase sozialen arteko elkarrizketa predikatzen zuen eta sozialismoa deitoratu. Aldiz, orain, langile borrokaren abangardian dabil eta ideia ezkertiarak bere egin ditu. Zer gertatu da ehun urteotan sindikatu abertzalearen baitan?

JOSU CHUECA



GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA / YANGUAS



MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

Ezkerreko irudian, 1933ko Gasteizko II. Biltzarreko irudia. Hirugarren biltzarra 1936an egin behar zuten Iruñean, baina gerra lehertu eta bertan behera geratu zen. Eskuinean, 2011ko ekainean ELAk 100. urteurrenean egindako ez-ohiko biltzarra.

DUELA 100 URTE egituratu zuten Bilbon Solidaridad de Obreros Vascos. 178 beharginek izena eman zuten elkarte berri horri izana emateko. Urte berean, CNT sindikatu anarkistak Bartzelonan lehen pausoak urratzen zituen bitartean, langileriaren eskubideak oso ikuspegi desberdinez defendatzeko elkartu ziren bizkaitar horiek. Hainbat urte lehenagotik Bizkaian errotuta zegoen UGT sindikatua-ren antzera, erakunde politiko bat izan zuten aitaponteko: Alderdi Sozialista zen UGTrena eta Eusko Alderdi Jeltzalea SOVrena.

Sabino Aranak berak euskal langileak elkartzea egokitzen jo zuenez geroztik, noiz-

behinka, alderdi jeltkidearen baitan, gizarte auziari aurre egiteko batzorderen bat eratu izan zen. Alderdi nazionalista lehen urrats politikoak egiten hasi zenean, testuingurua bero-bero zegoen, gizarte arazoa zela medio. 1890etik aurrera, meatzariak eta Nerbioi Ezkerraldeko langileak behin eta berriro egindako grebek eta mobilizazioek proletargo berriaren eskakizun zaharrak gizarteratu zituzten. Gatazka horietan, lan jarduna eta bizi baldintzak hobetzea aldarrikatzen zuten, baina haien atzetik, Facundo Perezagua, Carretero anaiak eta beste batzuk ikusmolde sozialista arrakastaz zabaltzen hasi ziren.



LOS NACIONALISTAS



KUTXA FOTOTEKA

Elkarrizketa sozialaren alde, sozialismoaren kontra

Giro horretan, gizarte auziaz arduratzen ziren abertzaleek martxan jarri zuten Solidaridad de Obreros Vascos deituriko erakundea. Bertakozentzat egina zen, kide izan nahi zutenei euskal abizen bat bederen edukitzea eskatzen baitzieten hastapeneko arautegietan. Era berean, Elizak aldarrikatu zuen *Rerum Novarum* entziklikari eutsiz, langileriaren artean aritzea zuten helburu, baina klaseen arteko borroka bultzatu gabe. Solidarioen arabera, klaseen arteko elkarrizketak uxatu behar zituen burgesiaren eta beharginen arteko liskarrak. Ideologia berriari –sozialismoari alegia– aurre egiteko egoki jotzen zuten kooperatiben bitartez jabetza partekatua bultzatzea, baina inolaz ere kapitalismoaren funtsak ezbaian jartzeko. Bide horretan, ELAk kooperatibismoaren eta mutualismoaren aldeko ekimenak sustatu zituen. Grebak eta mobilizazioak akuilatu ordez, sindikatuak lehentasuna eman zion langabezian geratzean edo kaleratuak izatean bere bazkideek jasan ohi zituzten egoerei aurre egiteari. Horrela, 1919an langabeziaren aurkako aseguruia jarri zuten indarrean eta urte berean lehen kooperatiba sortarazi zuten.

Jatorri eta oinarri horiekin Eusko Alderdi Jeltzalearen itzalpean zabaldu zen ELA lehendabiziko hamarkadetan. Bizkaian eta Gipuzkoan, oso azkar zabaldu zen, baina Araban eta Nafarroan zailagoa izan zuen errotzea. Sindikatuko lehen biltzarra 1929an burutu zuten Eibarren eta 6.200 bazkide bizkaitar eta 1.500 gipuzkoar zeuden ordezkaturik, aldiz, ez zen gainerako lurraldeetako ordezkariak nabarmenik egon. Alde batetik, Araban eta Nafarroan zegoen industrializazio eskasak nabarmen mugatzen zuen sindikatu ororen giza esparrua. Bestetik, nekazal eremuan, Nafarroan bereziki, Elizak berak bultzaturiko ekimenak (nekazal kutzak, labo-

Ezkerrean, San Andres batailoia gerra zibilean, STVko afiliatuez osatua. Eskuinean, STV 1933an Lasarte-Orian egoitza ireki zueneko irudia.

Mende hasieran sozialismoari aurre egiteko sortutako sindikatuak ideologia hori barneratua zuen erabat 1960ko hamarkadan

reak eraldatzeko kooperatibak, aisialdi txokolak...) nahiko asetuta zuten ELAk begiko izan zezakeen esparru moderatua.

II. Errepublika: Solidaridad de Trabajadores Vascos

Dena den, II. Errepublikarekin egundoko hedapena lortu zuen ELAk, beste sindikatuen antzera. Erregimen berria aldarrikatu ondoren, Bizkaian eta Gipuzkoan sendotu egin ziren solidarioak, eta Araban zein Nafarroan ere errotu ziren. Lehen hilabeteetan alderdi ezkertiarrek hartu zuten nagusigo politikoak akuliatu egin zituen sindikatu abertzalearen ekimen propagandistiko eta eratzailak. Jose Ariztimuño *Aitzol*-ek artikulua idatzi zuen prentsan, estrainako hauteskundeetako garaipean ezkertiarren abagunean: *Langileak uzten gaituzte* izenburu esanguratsua eman

zion eta kezka horren isla zuzena dugu. Hain zuzen, *Aitzol* bera, Policarpo Larrañaga, Nestor Zubeldia, eta batez ere, Manu Robles Arangiz, Jose Benegas, Bienvenido Cilveti (ikus elkarrizketa 9. orrialdean) eta Anastasi Agerre jo eta su aritu ziren ELAren mezua zabal-

tzen Euskal Herri osoan barrena. Hurrengo urteetako bazkideen kopuruak ikusita, nola baiteko arrakasta izan zuten. Izan ere, 1933an Gasteizen bigarren biltzarra burutu zutenean, 40.342 kide zituen sindikatuak, 135 taldetan eraturik. Horietatik 63 bizkaitarrak ziren, 52 gipuzkoarrak, 12 arabarrak eta 8 nafarrak. Gainera, ordurarte sindikatutik kanpo egon ziren hainbat sektorek (arrantzaleak, nekazariak baita lanbide liberalak ere) aukera izan zuten sindikatuaren parte hartzeko. Errealitate zabalago hori ahalik eta egokien islatzeko, SOV izena alboratu eta Solidaridad de Trabajadores Vascos bihurtu zen.

Praxi sindikalari zegoekionez, Gasteizko biltzar horretan sorospen arloei ohiko garrantzia eman zieten, baina orduko egoera sozio-eko-

ARGIA



BERRIAK



nomiko latzari ere aurre egin behar izan zioten. Amets eta ekimen kooperatibistak ahan-tzi gabe, langileek eta beste erakundeek bul-tzaturiko greben eta mobilizazioen aurka jardun behar izan zuten behin baino gehiagot-an. Bukatzear zegoen sindikatu zenbaitek, hala nola UGTk eta CNTk, Errepublikako lehen biurtekoan Espainiako Gobernuari eta tokian tokiko ugazabei luzaturiko “giza bakea”. Industria arloan langabezia gero eta handiagoa zen eta nekazal erreformak ez atzera ez aurrera jarraitzen zuen. Esangura-tsua izan zen 1934ko urriko grebarekin gerta-turikoa. STVk kontrako jarrera hartu zuen, baina bere kide ugari bat egin zuen orokorra eta iraultzailea izan nahi zuen mobilizazio horrekin. 1936an ere, Fronte Popularraren garaipena etorri zenean, uholde errebindika-tzailearekin askotan egin zuten bat solidario-ek. Nafarroan, esate baterako, urte horretako ekainean izan zen eraikuntza arloko greba orokorraren karira, lehen aldiz CNTkoekin eta UGTkoekin aritu ziren STVkoak.

Gerra zibila: heriotza, espetxea eta erbestea

Sindikatu ezkertiar horiekiko behin betiko hur-biltzea 1936ko Gerrak ekarri zuen, ahal izan zen tokitan, hau da, Gipuzkoan eta bereziki

Ezkerrean, Manu Robles-Arangiz urte luzez ELAko presidente izandakoa (irudiaren erdian), 1976an Santutxun egindako prentsaurreko batean. Eskuinean, ELAren III. Biltzarra 1976an, 40 urte igaro ziren Gasteizen II. Biltzarra egin zutenetik.

Bizkaian. Eskualde horietako solidario asko batu egin ziren alderdi eta erakunde ezkertia-rrekin, matxino faxistei aurre egiteko. ELAko-ek San Andres batailoia eratu zuten, baina beste askotan ere hartu zuten parte. Santoñan, Eusko Gudarosteak amore eman ostean, lehen fusilamendu kolektiboan –frankistek aukeratu-tako biktimen artean talde antifaxista guztiak zeuden ordezkaturik–, ELAkoek odolezko zerga ordaindu zuten, Jesus Zabala eta Jose Ibarbiaren hilketekin. 1936ko uztailaz geroztik, beste demokrata guztiek bezala, borrokatzea izan zuten ortzemuga ELAkideek. Baina era berean, ordutik aurrera heriotza, espetxea eta erbestea izan zuten patu. Eskuindarrak eta katolikoak izan zitezkeen, baina langileen alde borrokatzea eta abertzale izatea, *gorriseparatis-ten* multzoan sartzea zen. Hori zela eta, dikta-dura frankistak iraun zuen bitartean erbestetik eta klandestinitatetik jardun behar izan zuen ELAk. Gerrak eragotzi zien 1936ko uztailaren III. Biltzarra egitea Iruñean, bada, 1976 arte ezin izan zuten biltzar hori burutu.

Tarte horretan, kanpoan burutu zituzten ekimenetan (*Baionako Hitzarmena* 1945ean, Pariseko Euskal Mundu Biltzarra 1956an, Municheko bilkura 1962an...) parte hartzeaz gain, hainbat grebetan (1947koan zein 1951koan) eragin zuzena izan zuten ELAko-

XXIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2011

Sari nagusia: Goiena Komunikazio Taldea.

Epaimahaiaren sari berezia: Ainhua Oiartzabal.

Kazetari berria: Igone Fernandez.

Ohorezko aipamenak: Miren Jone Azurza eta Ignazio Arregi.

Aitormen berezia: "Erlea" aldizkaria.



Andoaingo Udala
Euskararen Normalizaziorako Lansaila



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ek. Hala eta guztiz ere, 1960ko hamarkadan eta diktadura frankistaren bukaera aldera, langileriaren baitan beste erakunde eta mugimendu batzuek indarra hartu zuten neurrian, ELA bezalako sindikatu historikoek gero eta oihartzun apalagoa izan zuten.

40 urteko izotzaldiaren ondoren, borrokarako ordua

Euskal solidarioen kasuan, barruan izandako zatiketek eta horien ondorioz talde desberdinak sortu izanak – ELA-Miarritze edo historikoa; ELA barnekoa...– zaildu egin zuen bere jardun politiko zein sindikala. Izan ere, Francoren osteko trantsizioan abiapuntu oso berezia izan zuen ELAk. Orduan indartsuena zen CCOO langile erakundeak prest zegoen Portugalgo ereduari, hau da, sindikatu bakarraren hautuari ekiteko. Horrek sindikatu guztiak erakunde bakar batean desegitea ekarriko zuen. Bestetik, ideologiaren talaiatik begiratura, erabat desberdina zen orduko ELA, jatorrikoarekin alderatuz gero. Hasierako hamarkadetan EAJrekiko zuen morrontza ideologikoa eta hainbat buruzagi politikoren esku hartzea –Manu Robles, Heliodoro de la Torre...– amaituta zegoen, nahiz eta abertzalea izaten jarraitu zuen. Aitzitik, mende hasieran sozialismoari aurre egiteko sortutako sindikatuak, ideologia hori barneratuta zuen erabat 1960ko hamarkadan, sozialismoa bere ildo politiko estrategikoan zegoen. Horretan ere, lehiakide izanen zituen UGT eta Francoren garaietan sorturiko USO bezalako elkarte berriak. Baina praxi mailan, ELA prest zegoen klaseen arteko borrokari heltzeko, eta UGTk, itunen mesedetan, laster

zokoratuko zituen jarrera borrokalariak. Erresistentzia kutxa eta ohiko sorospen berme guztiak sustatu ez ezik, bur-belarri heldu zion ELAk itunen kontrako estrategiari eta Euskadiko birmoldaketa industrialaren kontrako mobilizazioei.

Egun, trantsizio politikoa urruntzen ari denean, eta testuinguru ekonomikoa arras desberdina dugunean, balantzea egiteko nahiko tarte dugu. Horren ildotik ikus daiteke,

Espainia mailan sindikatu nagusi direnak, UGT eta CCOO,

Hego Euskal Herrian ELAren atzetik gelditu direla, bazkide zein ordezkari sindikalei dagokienez. Gainera, ikusirik LABek eta sektoreetako sindikatu zenbaitek, STEE-EILAS kasu, azken hamarkadetan izan duten hazkundera, nabarmena da euskal eremu sindikala oso desberdina dela Espainian dagoenarekiko. Jakina denez, CCOO eta UGTk

Estatuko Gobernuarekin eta patrona-

laren elkargoekin (CEOekin edo Confebaskoekin), behin eta berriz hitzarmenak sinatu dituzte. Aldiz, aurrez aurre izan dituzte ELA bezalako sindikatuak. Moncloako Itunetatik hasita, azken Lan eta Pentsioen Erreformataraino, ELAk, LABek, EILASEk, HIRUK eta EHNEK osatutako gehiengo sindikalak greba eta mobilizazioak egiteko adorea askoz handiagoa erakutsi dute, eta argi eta garbi adierazi dute XX. mende hasierako ideiak eta praxiak erabat aldatu direla. Klaseen arteko borroka aldarrikatzen zuen hainbatek, gaur egun nahikoa omen du burgesiak eskaintzen dizkion kondarrek. Klaseen arteko adiskidetasuna bultzatzen zutenek, aldiz, eskarmentu eta historiaren poderioz, ederki barneratu dute kapitalismoa indarrean dagoen bitartean, soilik langileen adoreari esker egin daitekeela aurrera haien duintasunaren defentsan.



Goitik behera:
Caracaseko Lan Deya-ren azala 1973an; 1977ko ELAren kartela Maiatzaren Lehena aldarrikatzeko; 1990eko afixa enpleguaren alde; 2010eko Lan Deia greba orokorrera deituz.



Ondarru

Liburu azoka uztailaren 22tik 30era, Alamendan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Bienvenido Cilveti, 107 urteko ELAkidea

«Guk abiarazi genuen Farangortea»

Bienvenido Cilveti Urkia Ongietorri izengoitiaz baliatzen zen. ELA eratu zuen Nafarroan Errepublikako urtetan. Sindikatu horren Nafarroako idazkari orokorra izan zen 1933az geroztik eta Gasteizen egindako II. Biltzarrean parte hartu zuen. Egun Iruñean bizi da.

ELA, beste lurraldeekin konparatuta berandua-
go abiatu zen Nafarroan.

ELA gehienbat alderdiak (EAJ) bultzatu zuen Nafarroan. Alderdiaren eragina handia izan zen sindikatuaren garapenean. Bazegoen oso politikari ona, Jose Agerre, eta harekin, haren anaia Anastasirekin, Felipe Oñatebiarekin ... hasi ginen. Hartu genituen Iruñeko eta herrietako bizkorrenak eta hitzaldiak ematen genituen. Taldeska batzuk izan ziren hasieran, gero Iruñean nahiko jende bildu genuen.

Zer nolako harremanak izan zenituen beste sindikatu eta alderdiekin?

Ezkertiarrek leporatzen ziguten bigunak eta eskuindarrak ginela. Eskuindarrek, aldiz, abertzaleak ginelako oztopoak jartzen zizkiguten. Baina guk erantzun egiten genien. Bat egiten genuen langileen defentsan, baina gero bakoitzak bere aldetik jotzen zuen. Ez geunden gu oso prest grebak bultzatzeko, baina grebak hasitakoan, behin baino gehiagotan bat egin genuen.

Eragina izan al zuten apezek eta Elizak zuen jardun sindikalean?

Hemen apez gehienak besteekin zeuden, ohiko eskuinarekin. Guri kostatu zitzaigun gure lekutxo egitea. Dena den, hainbat apez gurekin zeuden, kooperatibak sustatzen eta Euskal Estatutuaren alde lanean.

Nestor Zubeldiaz ari zara, ezta?

Bai. On Nestor teoriaren aldetik oso jantzita zegoen. Irakaslea et kanonigoa zen Iruñean. Abertzalea ere bai. Berak oso ongi ikusten zituen kooperatibismoaren aldeko ekimenak eta elkarri lagundu genion. Izan ere, guk lagundu genuen Artaxoan kooperatiba handi bat martxan jartzen: Farangortea. Dirua jarri genuen hori abiarazteko, eta gogo handiz gainera, Nafarroa erdialdean ELAk amesten zuen kooperatibismoa gauzatzea baitzihoan. Gutxi iraun zuen, gerra lehertzean amaitu zen. Horko langileen nagusiak ezkutatu egin behar izan zuen eta gero Frantziara alde egin



JOSU CHUECA

“Ezkertiarrek leporatzen ziguten bigunak eta eskuindarrak ginela.

Eskuindarrek, aldiz, abertzaleak ginelako oztopoak jartzen zizkiguten”.

zuen. Baina hor hasi ginen, nonbaitetik hasi behar genuelako...

Gerrarekin batera, ez bakarrik Farangortea, dena amaitu zen...

Bai, gerra karlistek piztu zuten, eta ezkerrekoek erantzun egin zuten. Gu erdian geunden eta bakoitzak ahal izan zuena egin zuen. Sindikatua, noski, gauza horiek guztiak bezala pikutara joan zen. Dena itxi ziguten eta genituen agiri eta paper guztiak ez dakit nora eraman zituzten. Iruñean egitear genuen gure biltzar nagusia, uztaila aldean, eta noski, ez zen egin. Goitik behera deuseztatu gintuzten. Nik zorte ona izan nuen, pertsona baten laguntza izan nuelako. Baina beste batzuek, Agerrek eta abar, arazoak izan zituzten. ■

Iñaki Soto

«Kazetaritza guztia politikoa da»

Filosofo bat egunkariko zuzendari, bertsolari bat elkarriketatzailer... Gora euskal kazetaritza!

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Iruindarra, familia internazionalista ezkertiar eta abertzale batekoa, udal ikastolan ibilia... Ez da artikulua hasiera txarra.

Iruñea oso herri *makarra* izan da, musikalki, politikoki... oso bipolarra. Batetik, Opus Dei-ren indargune handi bat dago, ez dakit zenbat preso politiko bestetik, eta gatazka oso nabarmena da. Agian euskaldunen eta espainolen arteko segregazioa beste toki batzuetan baino handiagoa da, eta horrek konfrontazioa beste modu batera bizitzea dakar. Gu Zaragozarako errepidean bizi ginen, hegoaldera begira, eta gure blokeko hamasei familietatik bi baizik ez ginen ikastolara joaten. Hori gutxi ez eta ikastola pribatuaren eta publikoaren arteko eztabaida puripurian zegoen orduan, eta udal ikastolaren aldeko borrokak, esanguratsua izateaz gain, arrastoa utzi zuen nigan. Gure etxean beti izan gara euskaltzaleak, beti izan dugu kulturarekiko miresmena, eta beti bidaiatu dugu asko. Pentsa, 18 urterekin, anaiari eta bioi, gurasoek Kubara brigadetara joateko aukera eskaini ziguten.

Horrek ere lagako zizun arrastoa...

Urtebete lehenago osaba-izebekin Nikaraguan izan nintzen, osaba bertakoa delako, eta bitxia badirudi ere, Kuban izugarri ikasi nuen Euskal Herriari buruz. 1992an joan ginen, "periodo especial" deitzen zuten tarte batean, Sobietar Batasun erori berriak sortutako ezegonkortasuna nagusi zenean. Sasoi latzak ziren Kubarentzat. Horrek ere izango du eraginik oroitzapenetan, baina ordukoa izan zen beste herrialdeetako euskaldunekin, pertsona heldu gisa, harremanetan jarri nintzen lehen aldia. Horri esker

Euskal Herriari buruzko irudi argiagoa ekarri nuen motxilan, euskal herritarren argazki zehatzagoa, gure gaitasun, bertute eta miseria guztiekin.

Motxila betetzen segitzeko, filosofian lizentziatu eta nazionalismoaren etikari buruzko tesiari ekin zenion.

Egoera desberdinetan aplikatu zitekeen eredu teoriko orokor bat planteatzen ahalegindu nintzen, ona eta txarraren arteko etikaren kontzeptua baztertu, eta etika pluralistaren alde eginez. Herri bakoitzean, garatu den kultura politikoaren araberrako balore sistemak osatzen dira. Zentzu horretan, nazio bat gurela defendatzen dugunean, kontua ez da gurea ez dela Espainia edo Frantzia bezalako nazio bat eta hortik aurrera nazio guztiak berdinak direla. Balio sistema horrek tokian tokiko ezaugarri propioak dauzka. Ez da kasualitatea nazioartean nazionalismoarekiko dagoen miresmen eta interes akademikoa. Tesi asko egiten dira nazionalismoari buruz, ikuspuntu eta diziplina oso desberdinetatik. Euskaldunok oso modu pribatiboan ikusten dugu gaia, gurea balitz bezala, baina Unamunok esaten zuenaren kontrara, ez zara bidaia-

Nortasun agiria

1975ean sortu zen Iruñean. Filosofian lizentziatua, 2006an Montenegroko erreferenduma zela eta izan zuen kazetaritzarekin lehen harreman profesionala. *Gara* egunkariko iritzi saileko arduradun izan ostean, egunkariko zuzendaria da urte hastapenetik.





Eskuak dakar pentsamendua, pentsamenduak begirada, eta begiradak hitza.

tuz sendatzen. Bidaia tuz, besteek beste nazionalismo klase bat daukatela konturatzen zara.

Zer toki behar luke nazionalismoak euskal identitatean?

Pluralismoaren kontzeptu hori sortu behar dugu. Hori hala, identitateen garrantzia justifikatzeko modu asko daude. Lehenik eta behin, unibertsaletik, jende guztiarentzat da garrantzitsua identitatearen gaia, kontra egiteko besterik ez bada ere. Niretzat, ez dago munduko hiritarrik, nahiz eta askok euren burua hala definitu. Identitate hori ere sortu egiten da, eraiki, errealitateetik urrun dagoen ikuspegi batetik abiatuz. Munduko hiritar horiek ohartu behar lukete lapsus logiko bat dagoela euren planteamenduan. Txinatar batean bazkaldu, japoniarrean afaldu, Estatu Batuetan ekoiztutako serie bat ikusi eta tekno nordikoa entzun nahi badute, aurrera, baina gauza horiek guztiak nonbait ekoizten dira ikuspuntu abertzale batetik. Horregatik diot, identitatearen garrantzia justifikatzeko dauden modu guztietatik edan behar dugula gure identitatea justifikatzeko, eta batzuetan ikuspuntu esentzialistago bat izan dezakegula, eta hurrena instrumentalagoa. Arrazoi andana daukagu independentziaren edo euskal identitatearen alde egiteko, gure alternatibak, frantses edo espainolak izatea, defendagaitzak direlako egungo munduan. Ez gara erredukzionistak izan behar, eta identitate hori eraikitzeke dauden modu positibo posible guztiak integratzen asmatu behar dugu. Noiz arte eztabaidatu behar dugu gure artean euskaldunak garelako Nafarroako erreinua izan zelako, edo euskara dagoelako, edo independentismo instrumental bat daukagulako? Pluralismo hori errespetatu behar da, osagarria delako, eta bidea ikuspuntu zabalago, aurrera- tuago eta interesgarriago batetik urratu behar dugulako. Ez zait barne-lehia hori gustatzen, emaitzak emaitza, lehia horretan beti euskaldunak ateratzen garelako galtzaile.

Erreferendumeke ere asko dute lehia eta emaitzetatik, eta zu, 2006an, Montenegrokoan egon zinen.

Lehen oroitzapenak oso emozionalak dira, han bizitakoa ere oso emozionala izan zelako. Batetik, hura izan zen nire lehen harreman zuzen eta profesionala kazetaritzarekin, eta bestetik, esperientzia askatzailea gertatu zen hitzaren zentzu guztietan. Intelektualki, irakaskaspen handiak utzi zizkiguten. Independentismoak garapen handia izan zuen denbora laburrean, eta independentzia lortu arren, independentistak ez ziren garaile atera. Oraindik minoritarioa den posizio politiko askoz

aurreratua goa eta ezkertiaragoa daukate egungo Montenegro independentean. Baina independentzia jarri zuten lehentasuntzat, eta garai hartako erregionalistekin akordio estrategiko bat lortu zuten aurrera egiteko. Beraiei txikitasunean, bestalde, Javier Solanari pultsua irabazi zioten Serbiarekin batera akordio inklusiboetara helduz, Solanak Kosobo eta Montenegroren arteko elkartruke moduko bat nahi zuelarik. Hori hala, garbi eduki behar da ez dagoela eredu askatzaile-rik ehuneko ehunetan inportatu daitekeenik, baina elementu batzuk zure dinamika eta kultura politikoan txertatu ditzakezu. Esaterako, sezesio prozesuak hasten direnean, nazioarteko komunitateak egoera deserosoa bizi du. Gehiengo batek eskatzen duen momentutik derrigortuta dago atea irekitzera, baina ezin du atea gehiegi zabaltu. Iruditzen zait gu ere hor gaudela, ate horren mugan, gure momentuaren zain, zirrikitua ikusi orduko sukaldaraino sartzeko prest. Hori bai, ezin dugu ahortzi garaipen horiek ere mugak dauzkatela, eta ordurako, lan handia egin beharko dela hainbat alorretan.

Gara ari da lanean. Orain bi urtetik honako zuen apustu editorialak zerikusi zuzena du egungo eszenatokiarekin.

Ezer garbi ez zegoenean finkatu genuen ildo editoriala, eta horrek gure lanaren ardatzetako bat den sinesgarritasuna ematen digu. Guk, eszenatoki hau ekarri duen eztabaida piztu zenean, garbi genuen gertatzen ari denaren alde egin behar genuela, sinesten genuelako eszenatoki hau positiboa zela gure irakurleentzat, gure oinarri sozialarentzat, sortu gintuen komunitatearentzat, baina baita euskal herritar guztientzat ere. Hori gutxi ez eta konbentzitu-ta geunden, herri bezala, irabazteko gehiago geneukala koiuntura honetan. Aurreko proze-

**“Garbi genuen gertatzen ari
denaren alde egin behar genuela,
sinesten genuelako eszenatoki
hau positiboa zela gure
irakurleentzat, baina baita euskal
herritar guztientzat ere”**

suak herri honen indarguneak bistan utzi zituen, eta kazetaritzatik horien alde egitea zegokigun. Guk kazetaritza eredu bat defendatzen dugu, eta bai, kazetaritza guztia politikoa da. Horrekin batera, argi daukagu gure eredia independentea dela, gure editoriala politikoa izanagatik ez dela partidarioa. Horrek eman zigun posizionatzeko askatasu-

na. Horrez gain, aparteko garrantzia ematen diogu sortu gintuen komunitateari. Oso modan dago enpresa batetik abiatuta komunitateak sortzea. Sobreko saldak kontsumitzen dituztenen komunitatea, alkoholik gabeko garagardoa edaten dutenen komunitatea... Enpresa munduan bideragarritasuna bermatzeko modua hori dela uste

da, egun. Gure kasuan, aitzitik, badaukagu komunitate hori, komunitate hori da gu sortu gintuena, baina ez gintuen sortu bere burua ezagutzera emateko, inpaktu sozial bat edukitzeko baizik. Misio horretan, ezinbestekoa da herri bezala aurrera egitea, herritarrentzat egoera hobe bat lantzea, eta horregatik ere egin genuen eszenatoki honen aldeko apustua.

Apustuak apustu, aldaketa aro orotan rol pedagogiko handia omen daukate hedabideek.

Komunikabideek pedagogia politikoa egiteko muga bat daukate: politikarien lana. Politikariek egiten dutena ez bada batere pedagogikoa, nekez egin dezakete komunikabideek lan hori. Alderdiek bestela uste duten arren, hedabideek ezin dute beraiek konpontzen ez dutena konpondu. Nire iritziz, egunkariak asko irabazten dute kazetaritza egiten dutenean, eta izugarri galtzen dute historia, pedagogia edo soziologia egiten hasten direnean. Gai horiek ikuspegi periodistikotik tratatu daitezke, baina muga gainditzen duzunean, zure lanak zentzua galtzen du, kalterako bihurtzeraino. Zergatik den kalterako? Nekez egin dezakezulako peda-




**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.


Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.











gogia lana zure interesak hain agerikoak badira. Nolanahi ere, iruditzen zait oraindik ere komunikabideek badaukatela indar pedagogiko bat, baina ez horrenbeste arlo politikoari lotua, gizarte bizitza eta botere harremanen ingurukoa baizik. Zentzu horretan, pedagogia lanak lehia politiko hutsa gainditu behar du, eta dimentsio politikoak daukaten baloreetan oinarritu.

Hori posible da hedabideei informazioa ez den guztia axola zaiela dirudien garaitan?

Krisi orokorraz gain, prentsak badu krisi partikular bat. Alde batetik, negozio eredia bertan behera geratu da, eta bestetik, gure lanari balioa kendu diogu. Alegia, euro baten truke jasotzen baduzu 80 orriko egunkari bat, DVD bat, Realeko zapatilak, Athletic-eko forrua, pijama bat, Arzak-en labana, *tupperware* bat eta TDT sintonizadore baterako kupoiak, zer balio du kazetaritzak? Zer balio du gure lanak? Horrekin batera, erronka teknologiko eta kulturalari ez diogu aurre hartu. Uste dut jendeak aldaketa murriztu egiten duela garapen eta berrikuntza teknologikora, baina aldaketa sakonena gure bizimoduetan dago, gure informazioarekiko harremanean. Hala ere, Euskal Herrian, politikarekin bezala, kazetaritzarekin konpromiso garrantzitsu bat dago, eta beste herrialde batzuekin alderatuta, egoera hobean gaude. Horrek esan nahi du kazetaritzak eta politikak bat egiten duten erpin horretan oso gauza interesgarriak daudela egiteko, eta neutralak izan gabe lehia partidariotik askatuz, gure balio nagusia berreskuratu dezakegula. Ildo editorial esplizituarekin eraikitzen da sinesgarritasuna.

Orain esplizitua dena zera da: lurralde batzuetan, *Gara* boterearen egunkaria izango dela.

Ingeleseko *“fight the power”* eta *“take the power back”*-ek laburbiltzen dituzten bi modu daude boterearekiko harremana ulertzeko. Injustua denean boterea borrokatu egin behar da, baina horrek ez du esan nahi boterearen aurkako posizio metafisiko eta antipolitiko bat mantendu behar dugunik. Nik boterearen aurkako diskurtsoa baino



OFF THE RECORD

Tertuliak

Kuartelek hegan eta hilotzek garrasi egiten zuten garai ez hain urrunetan gogoratzen dut Iñaki irratiko tertulia politikotik. Kanpoan, arerioak egindako legeekin, eta etxe-aldeko arbitroekin jokatu arren, beti ematen zuen berea. Aldekoak zein kontrakoak, denak konbentzitzeko arrazoitzen zuen, konbentzituak konbentzitzen ohituegiak dauden politikariak ipurdi-bistan utziz. Pozik entzungo nituzke orduko tertuliak, egoera zenbat, eta diskurtso batzuk zer gutxi aldatu diren frogatzeko.

nahiago dut boterea berreskuratzearen aldekoa, ikuspuntu ezkeriar eta internazionalistatik helburua boterea lortzea delako. Boterea lortzen dugunean, kudeatuko ditugu kontraesanak, gizarte hobea eratzea baita xedea, eta ez kontraesanik ez izatea. Hori hala, egia da kazetaritzak boterearen kontrola daramala bere kode genetikoan, baina kontrol horrek ez du zertan antisistema izan. Oso herri paradoxikoan bizi gara, eta gehiengo abertzale eta aurrerakoia dagoen tokietan ere, oso erraz gerta liteke grebara ateratzen pertsona batek irakurtzea, gehiengoak irakurtzen duen egunkarian, ez zela inor grebara ateratzen. Paradoxa horren aurrean gaude, eta horri aurre egiteko modu bakarra boterea berreskuratzea da, botere hori badaukagulako, eta botere horrek instituzioetan ere isla izan behar duelako.

Boterea berreskuratzeko sasoiotan, egon liteke irabazteratza jokatu beharrean ez galtzera jokatzeak tentazioa?

Gauzak egiteko beste modu bat behar dugu, ekarri behar dugun Euskal Herria desberdina delako. Asko daukagu ikas-teko bizi izan dugun tragedia honetatik, eta gauzak bestela egite horretan ez dezagun

ahaztu tragikotasunaren elementuak oraindik bizirik daudela. Presoen gaia hor dago, biktimak daude, tortura kasuak, atxilotetak... Oraindik gauzak okertzeko arrisku handia dago. Hala ere, nahi dugun herria irudikatzen hasi behar dugu, herritartasunaren kontzeptua nolakoa izango den, zer harreman edukiko dugun atzerriatik datozenekin, gizarte mailako erlazioak nola saretuko ditugun, ekonomikoki nola garatuko garen, naturarekin zer harreman izango dugun... Elementu horiek agenda politikoan sartu eta denon artean adostasun batera heltzen baldin bagara, herri honek potentzial izugarria dauka eskaintza oso positiboa gauzatzeko, bai bertan bizi garenontzat, baita besteontzat ere. Ezin dugu galdu/irabazi eskemaren arabera jokatu, denok baitauegu asko irabazteko, eta hala, Bilduk erakutsi beharko du eszenatoki hau positiboa dela guztiontzat. ■



► Libia: zein da heroia, zein tiranoa?

Batzuentzat Libian askatasunaren aldeko ekintzaileak direnak beste batzuentzat inperialismoaren txotxongiloak baino ez dira. Guda zibil horretan gertatzen ari dena lehen eskutik jaso duen Alberto Pradilla kolaboratzailearekin solastu gara, Libiatik etorri berria den honetan.



► Amaia Izko

Iruñean jaioa 1971n. Zuzenbidea ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean. Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kide izana. AEKn ikasi zuen euskara, baita gerora AEKn bertan irakasle aritu ere. Iruñean hasi zen abokatu lanetan 1996an. Harrezkero euskal preso politikoen abokatu gisa jardun du beti.



► Dena prest dago.

Bizikleta gainean, basoan behera abiadura bizian saltoak eginez ezagutu dugu Antton Etxeberria. Ibardin aldean ibiltzen da Donibane Lohitzuneko gaztea, buruan imajinatzen dituen pistak eraikitzen. Ondoren bizikletaz free-ridean ibiltzen da.



Jarri zure segapoto-inteligentea kode arraro honen aurrean, eta QR irakurgailua jaitsita baduzu, saioa ikusiko duzu unean bertan.

www.argia.com

www.beranduegi.tv

Bihotzez

Neskak soinu txikia jotzen atera zinetean, nire eguzki argiaren ordain-agiriak gora egin zuen nabarmen. Nietzsche filosofoak supergizonaren mitoa hartzeko erabili zuen erromeriaren munduan, elfo sukaldariek ez zidaten mutur beltzik jartzen eta adeitasun handiagoz agurtzen ninduen airea guztiz sorginduta zeukan udako amodio-usainak.

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

Nolakoak garen: Euskal Rock Erradikalaren aldeko nire kardiopatiak ezin onar zezakeen Alaitz eta Maider entzun eta, ipurdia gaseosa bakarrik ez, bexamela ere egiten zitzaidala. Nire buruaren kontrako zentsura prebentiboak hamaika aldiz ukatuko zituen, eta ukazio bakoitzak zuriune handi bat uzten zuen nire arratsaldeko bostetan. “Isilezko sekretutan, norbera da sekretu handiena, nahi duena, norbera da”. Amorrua hartzen nion neure buruari, eta tristezia izugarria, ispiluaurrean. Baina gaur, guztiz nirea ez zen ni hegemoniko hartako kutxa zaharretik aterata, iragan alargunaren arbelean “barkaidazue” idatzita utzi nahi diet, malkoak begietan, bihotz hunkiturik, ni ere haietaz maitemindua nengoelako, trikitixaraino. Ai, TAOko kotxe-zaintzaileen kaleko arroparen poesia! Ai, egunkariak orrialde politikorik gabe gelditzen diren une hau! Ai mendi muino berdeak eta pinudiak eta herrixka ederrak! Ai udako maiteminaren berealdiko belarrondokoa! Haize zakarra da udako maitemina, buruko arbolon adaburuak tolesten dituen. Kartzelaldiez betetako taupada aske eta nahasia da udako maitemina, taxi bat bezala noiz pasatuko egon, eta bizitza osotik gora zain egon beharra. Udar ez diot maiteminduta egoteari uzten, mahatsondo bat bezala nago maiteminaren lurrean errotuta, baina ez da batere ona, eta ondorio larriak ditu limoiurazko nire osasunarentzat:

«
Odon Elorzaren eta Juan Karlos Izagirreraren
arteko besarkada ikustean eta Arnaldo Otegi
Bateragune auzian helburua talde armatuak
armak uztea eta behin betiko bakearen eta
benetako demokraziaren bidea jorratzea zela
esaten entzutean, bihotza telebista gainean jarri
eta esan nien: hemen naukazue
»

Rosa Aguilar Ingurumen ministroak eta Kordobako alkate ohia “minduta” agertu zen Donostia Europako Kultur Hiriburu izendatzearekin, eta bakegintzaren argudio politikoa kontuan izatea “akats larria” izan dela gaineratu zuen. Aguilarren hitzetan hautsi zitzaidan aurrenekoz uda honetan bihotza,

maiteminaren halako sinpatia nion emakume horri arimaren konfederazioko argi guztiak itzali zaizkionean. Baina maiteminaren urradurari maiteminaren normaltasunak jarraitzen dio, konpentsazio gisa, eta Madrilén, egun berean, hiri berean, Odon Elorza Donostiako alkate ohiaren eta Juan Karlos Izagirre Donostiako alkate berriaren arteko besarkada ikustean eta Arnaldo Otegi Bateragune auzian helburua talde armatuak armak uztea eta behin betiko bakearen eta benetako demokraziaren bidea jorratzea zela esaten entzutean, bihotza telebista gainean jarri eta esan nien: hemen naukazue. Gero, Angela Murillo Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak galdera adimentsua egin zuen, eta berriz damutu nintzen bihotza sentitzearen pasioaz, baina Yves Salaverry *Xalak* “pilota ez da dirua bakarrik, pilota gauza handia da” zirraraz eta negarrez aldarrikatu zuenean, berriz sentitu nuen bihotza umeen partiduetarako pilotak bezain bigun-bigun eta bizia edukitzea dela munduko gauzarik inportanteena. Eta

“musikaren zarata desatsegina saihesteko”, Chueca auzoan kaskoekin entzuteko agindua eman zutenean, nahiago dut ez esan bihotza nola mututu zitzaidan, baina Zea Mays taldeak egin duen azken bideoan azaltzen den irakaslearekin orain maitemindua nagoela gogoratu, eta ni baino indartsuago hasi zait bihotza. Ez da kezkatzen nauen problema, benetan esaten dizuet. Nire bihotzaren tokian nire burua izateak, horrexek bai kezkatuko ninduke. ■

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Carmen Valois

NUPEKO IRAKASLEA

Potterren ekologia

Baina ez Harryrena, irakurle. Izan ere, Van Rensselaer Potterren (1911-2001) inguruan arituko naiz, heldu den abuztuan beteko baitira ehun urte jaio zela.

Hasiko naiz aipatzen, biokimikan aditua zela eta bere lana lotua egon zela ikerkuntza onkologikoarekin Wisconsin-eko Medikuntza Fakultatean. Horretaz gain, “bioetika” kontzeptuaren inguruko hausnarketa sakona zor diogu. Baita diziplina honen lehendabiziko liburua ere, *Bioethics: Bridge to the future* (Bioetika: Etorkizunerako zubi bat) izenekoa, 1971. urtean argitaratua.

Bertan azaltzen ditu zubi hori eraikitze-ko zutabeak zeintzuk diren. Hasteko, definitzen du bioetikaren funtsezko papera: zientziak eta giza zientziak lotzea. Bere ustez, ezagutza zientifikoa eta teknologikoa ez dira, berez, nahikoak gizakion zoriontasuna lortzeko, ezta zibilizazio justu eta iraunkor bat garatzeko ere. Horregatik ekologia baten beharra aldarrikatzen du, oreka baten premia. Bioetikak duen ikuspuntu zabala eskaintzen digu, elkarrekiko lotze baten beharrezana, bizidunena, guztiona, gu eta naturarena.

Bestetik, balio etikoen garrantziaz hitz egiten digu. Berarentzat balio etikoak eta gertaera biologikoak elkarturik doaz. Eta horietan datza,



DANI BLANCO

hain zuzen, egungo zibilizazioak arazoei aurre egiteko garatu beharreko jarrera eta ekintzen oinarriak. Horrela dio: guk etikaren beharra daukagu, lurrarena, kontsumoarena, populazioarena... Denak beharrezkoak baitira ekosistema globalaren iraupenerako.

Halaber, Potterrek aldarrikatzen duen bioetikan, umiltasuna oinarritzko bertutea da, erantzukizunaz jokatzera eramaten gaituena, hots, munduan dagoen esperientzia eta eskura dugun ezaguera baliatzea. Diziplina akademikoaz harago, Potterrek bizitzaren aldeko konpromiso eta militantzia aktibo baten alde aldarri egiten du: gizakion arazoei aurre egiteko modu bat, zibilizazio eta kulturen bizi- raupen zintzoa bermatzeko.

Edonola ere, Potterrek aurreikusitako etorkizuna gure oraina da. Atsotitz japoniar honek dioen moduan: “Lehenaldia ezagutu nahi baduzu, begira oraina, haren emaitza baita. Etorkizuna ezagutu nahi baduzu, orainari egin so, haren kausa delako”.

Guk ez genuke ahaztu behar, etika global horren beharra izaten jarraitzen dugula; hitzena, ideiena eta hausnarketarena ere. Fun- tsean, pentsaera ekologiko oso bat garatu beharra daukagula, egungo bizimoduak irentsi ez gaitzan. Bizimodu iraunkorrago baten alde. ■

« Ez genuke ahaztu behar, etika global horren beharra izaten jarraitzen dugula; hitzena, ideiena eta hausnarketarena ere »

TXANDAN

Igor Estankona



Zaragozako alkateak antza denez argi dauka, baina nik ere badaukat nire teoria Donostia hautatu izanaren ingurukoa. Europako erakundeetan kokoteraino daude militarretaz, eskola-porro- taren Espainiaz, kokoteraino presio politikoez, kokoteraino 1986tik negar baino egin ez dutene- taz. Tortura kasuak errebisatzeaz aspertzen eta lotsak gorrizten hasi dira. Hegoaldeko monarkia kirastuak garrantzitsua izaten jarraitzen du biz- tanle aldetik, baina jada ez da hain beharrezkoa Europaren legitimotasunerako.

Horixe gertatzen da. Europar Batasuna Aus-

2016

trian bukatzen zireneko garaia joan ziren, nahiz eta galtzaile txarretako asko ez den oraindino horretaz ohartu. Eskatu eta emango zaizue, pentsatzen dute, hala ohi- tuta. Eta ez diete eman.

Donostiak ere programa aspergarri, garesti, motel eta prebisiblea aurkeztu zuen. Etxeko sua etxeko hautsaz estaltzeko elegantzia, denek bat egiteko ahalmena eta euskaldunen seriotasuna aukeratu dituzte, ordea. Nire ustez, potentziala saritu dute, bakearen aukera, beste era bateko Donostia 2016. Saritu dute txundi dezan mun- dua eta alda dezan ideiarik gabe, loturik dagoen Europa. ■

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Estatuaren kohesioa

Gipuzkoak gure esperantza darama. Bildu agintean izaki, euskararen alde egiteko inoiz ezagutu ditugun baldintza onenak ditu. Gipuzkoak lerro nagusia markatuko du, eta euskararen etorkizunaren parte handi bat bideratuko du. Konfiantza handia dugu Gipuzkoako euskalgintza oso arduratsua eta kementsua baita aspaldidanik. Denon onerako. Zazpi herrialdeentzako. Gipuzkoak euskaraz bizitzeko behar ditugun tresnak errealitatera ekarriko ditu, nonbait burujabetzarako lehen urratsak.

Garrantzi berezia du aldaketak Ipar Euskal Herrian bizi garenontzat, bizi dugun hizkuntzarekiko zapalketa ez baita murrizten, aitzina jarraitzen baitu. Noski, egia da euskaraz eta euskara ikasten duten ikasleen kopurua sekula baino handiagoa dela. Gizartea haatik, frantsesez bizi da.

Errealitate horri aurre egiten diogu eta ez dugu amore ematen, baina Paris-tik ere indarka ari dira. Aurten Baxoa euskaraz aurkezteko aukera izanzen zela erran zigiten. Promesa ez da gauzatu.

Lehen aldikoz Frantziako Senatuan hizkuntza gutxituen aldeko legea aipatua izan da



GAIZKA IROZ



Lehen aldikoz Frantziako Senatuan
hizkuntz gutxituen aldeko legea
aipatua izan da aurten. Gaia inoiz
ez zen horretaraino heldu. Uler
daiteke aitzinamendua dela.
Horrela hartuko dugu



aurten. Gaia inoiz ez zen horretaraino heldu. Uler daiteke aitzinamendua dela. Horrela hartuko dugu.

Dena den, indar harremanaren jokoa hautatu du gobernuak, denbora irabaztearren.

Mayotte (itsasoz haraindiko) departamenduan frantsesa inposatzeko gobernuak erabaki duen politikak —bertako hizkuntzaren gainetik, bozek departamendu frantsesa izatea erabaki dutelako— seinalatzen du frantses hizkuntzaren garrantzia estatuaren kohesiorako. Hau da, Parisi begira bizi den estatua, hizkuntza bakarraren bitartez Estatuko herri gutxiutuak estekatuz.

Frantses gobernuak hurbil-hurbiletik jarraitzen dute Ipar Euskal Herria. Duela hogeita hamar urte, departamendua agindu zигun orduko presidenteak. Gaur egun lurraldetasunaren erreformarekin gure izaera desagertzen da, ezabatzen gaituzte. Gaurko presidentek hizkuntza gutxituentzat lege bat agindu zuen. “Hitza hitz” eskatzen dugu, haatik ez du horrek oihartzunik Parisen.

Euskalgintzak urrats berriak iragarri ditu lege gerizaren alde. Martxorako pentsatua da manifestaldia. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



zelai bitan. Real Madrileko Casillasi Iker bere izena, bere aita guardia zibila País Vascon destinatuta zegoelarik jarri omen zioten, eta horrek kirol kazetarien artean balio erantsia ematen omen dio zurien kapitainari. Izan ere, irudi luke Espainia aldean hemen ibilitako guardia zibilak, poliziak, militarrek heroiak direla beren inguru hurbilenetan bereziki, hau Afganistan edo bailitzan. Eta Ikerrek, bere izena tatuaje, hori gogorarazten omen die kirola ez dela politikaz nahasi behar sutsu defendatzen duten kazetariei. Ez da Eñauten kasua. Bere aita, Kandido Zubikarai onda-

Bi atezain

rrutarra kartzelan dute joan den hogeita bi urteetan ETako militante izatearen akusaziopean. Eta, nik dakidanez, hau ez da Afganistan, hemengo kirol kazetariek ez dute Eñauten drama inongo balio erantsitatzat erabili, eta nago, ezkutuki ere ez diotela hitz lasaigarri askorik esan, kirola ez dela politikaz nahasi behar horrek, gurean ere baduela tokirik. Baina mendi oro ez da baratz, eta Eñautek sekulako maitasuna jasoko zuen bizi zelaientan, kirol kazetari eta zuzendaritzek bizi ez dituzten horietan, Alacant eta Alicante bereizteko gauza direnetan. Herculesek galdu du atezain on baten aukera, hau guardia zibilaren semea ez delako. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Euskal berristoria



INIGO AZKONA

*Ez genuen nahi, ez genuen nahi,
baina azkenean drama:
deskubritu da CIAk Carrero
garbitzen utzi izana.
Orain artean ETAk bakarrik
zuen eginaren fama,
baina zalantzan jarri denetik
historiaren bilana,
bada garaia argi uzteko
euskaldunon iragana.*

Eneko Aritza (770-852)

Erdi Aroko proba argirik
ez zuenez lortu inork,
orok onartu zituen euskal
Arturo eta Camelot.

Tomas Zumalakarregi (1788-1835)

Bizardun honek asmatu zuen
lehen patata tortilla;
hortik aurrera... jendea hain da
imajinatzen abila!

Orreaga, 778

Zer Karlomagno eta Errolan!?
Tira, mesedez, porfa, please...
Gu euskaldunak baino ez gara...
ez Asterix ta Obelix!

Sabino Arana Goiri (1865-1903)

Asmatu zuen ereserkia,
ikurrina, alderdia...
Bere lan oro asmatua da...
bera ere, alegia!

Juan Sebastian Elcano (1486-1526)

Elcano ez zen euskaldun jaio,
inork ez du ukatuko:
izen horrekin inoiz ez luke
Athleticen jokatu!

Gernikako bonbardaketa, 1937-4-26

Picassok koadro eskas bat zuen,
inon saltzen ez zuena;
aitzakia bat asmatu eta
akabo haren problema!

Linguae Vasconum Primitiae, 1545

Elkarrekoek opera prima
kolatu ziguten aise;
zorionez hau ondo irten zen,
ez Veleia bezalaxe!

Gabriel Aresti (1933-1975)

Olentzero behin sortu zen gisan
Papa Noel uxatzeko,
guk martiri bat behar genuen
euskalkiak nahasteko!

Euskaldun izan gura badugu

egunean-egunean,

batzen gaituen loturaren bat

behar dugu komunean.

Nahi izatea aski lotura

da nire uste xumean,

kontua ez baita zer izan ginen

behinola iraganean,

baizik eta zer izan nahi dugun

gure etorkizunean.

DOINUAK: Mundu honetan halako gauzak.

Aita-semeak tabernan daude (koplak).



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Musika

Ye-ye euskaldunen historia ahantzia

1965. Beatles pop talde britainiarrak urtebete darama munduan zehar biran. *Beatlemania* Euskal Herrira ere iritsi da, ez polemika gutxiarekin. Yon Libarona, Luis Amilibia, Zorion Egileor, Enarak, Bihurriak, euskaraz egindako ye-ye musika. Nor gogoratzen da haietaz?

GOTZON ELIZBURU



1960KO HAMARKADAN fenomeno handia zabaldu zen mendebaldeko kulturari: pop musikaren eztanda. Eta gaurdainoko itzala utzi duen talde handi bat: The Beatles. Lau-kote britainiarrak arrakasta itzela dauka: 1963an *From me to you* eta *She loves you* top guztietan markak hausten ari dira. *Beatlemania* fenomeno zabaltzen ari da: poliziak Heathrow aireportuan zain dituzten milaka jarraitzaileak ur txorrotaz busti ditu, Parlamentuan eztabaida piztu da poliziek Beatlesak babesteko euren buruak arriskuan jartzen dituztela diotela-eta. Amerikako Estatu Batuetako biran estadioak betetzen dituzte. 1965eko uztailean Shea Stadiumeko kontzertuan taldekideek ezin dute jotzen ari direna entzun, publikoaren garrasien ondorioz.

Euskal Herrira ere iritsi zen ye-ye fenomeno. Ezin zen bestela izan. “Hemeretzi urte-ekin Ingalaterrara joan nintzen ingelesa ikas-tera. Beatlesak, Rolling Stones edo Jimmy Hendrix gertutik ikusteko zortea izan nuen.

Ezker-eskuin Argoitia anaia-arrebak eta Ameslariak. Eurak izan ziren, besteak beste, euskal ye-ye musikaren aitzindariak. 1960ko hamarkadan zeresana eman bazuten ere, nahiko ezkutuan pasa dira haien lanak ondorengo belaunaldientzat.

Txoratzen itzuli nintzen nire melena postizo-arekin”, azaldu du Arantxa Gurmendi aktoreak. Ile luzeak, estetika berria, musika zaratzua. Gazteriaren betiko estereotipoak: axolagabeak zirela, alferrak zirela, ez zutela deus egiten. Eta ezezagunarekiko, kanpokoarekiko ohiko erreparoa. Kaleko *mobidaren* lehen urteak ziren. Eztabaida hau bete-beteen bizi izan zuen Gurmendik. “Hamazazpi urte nituen Jarrai antzerki taldean hasi nintzenean eta noski, gainerako alorretan ere inplikatu behar izan nintzen. Horietako bat zen *Zeruko Argia* astekariko *Gazte Naiz* atalean idaztea”. 1965ean argitaratu zituen zenbait artikulu dira eztabaidaren lekuko. *Ye-ye Gaztedia* artikuluan adibidez honela zioen: “Gaur eguneko gaztediari buruz zenbat lerro idatzi ote dira? (...) Denak batu ta gutxi gora bera au diote: Gaurko gaztedia ganberro ta irresponsable utsa da. (...) Asken iritzi hori egin baino lehen, zenbat gazterekin mintza zarete?”

Folklorismoan jarraitu ala euskara modernizatu

Eztabaidaren funtsa argia zen. Euskal kultura munduko eragin berrietatik babestu eta hermetikoki gorde behar da ala eragin berri horiek geureganatu behar ditugu? Jon Zelestino musikari eta bilduma zalearen ustez “garaian agian lehentasuntzat herri musikaren katea ez etetea zuten. Beste batzuek argi ikusten zuten ordea, mundua harantz zihoala eta ez zuela zentzurik itxita egoteak”. Mundu globalizatuak musika merkatua orduan ari zen zabaltzen Zelestinoren esanetan, eta eragin berriei uko egitea edo saihestea ezinezkoa zen, beraz.

Gainera, kontuan izan behar da 60ko hamarkadan Euskal Herria frankismo betean zegoela. Euskaraz hitz egitea hutsa debekatuta zegoen. Euskara eta euskal kultura babestu nahiak zaharregian eragin berriekiko erreparoa areagotu besterik ez zuen egiten. Garai hartako zenbait artikulugogor ere gordetzen omen ditu oraindik Gurmendik: “Nire irakasle izandako batek artikulua bat idatzi zuen esanez, musika modernoa euskaraz egitea euskara hutsaren hurrengotzat jotzea zela, zapaltzea, euskara ingelesa bilakatu nahi izatea... beno, izugarriak”.

Politikan sartu nahi ez izatea ere gazteen aurka egiten zen ohiko kritika zen. Adibide bat jartzearen, honela zioen X.T. delako batek *Euskotar* “Ye-Yes” *dalakoei, itz bi* artikuluan: “Gezurra dirudi nola erreko arinkeri bat zabaltzen ari dan gure gaztedian. (...) Alako bati galde-tuiozu politika zer dan. (...) Bereala, sutuko zaizu ta ez duala alako jokaeraren berri jakin nai, esango dizu”. Gurmendiren ustez aurreko belaunaldiak bizi izandako garai gogorrei zor zaizkie halako esanak. “Gure aurreko generazioei sufritzea tokatu zitzairen. Guk ez genuen gerra bizi izan zuzenean, beste mundu bat zen. Baina guk ez genuen errua. Guk disfrutatzea nahi genuen, horregatik leporatzen ziguten ez ginela aktiboak. Baina zer da aktiboa izatea, ez ginen gelditzen!”, dio Gurmendik.

Alta, Zelestinoren ustez “nolabaiteko iraultza estetiko hori kontu politikoa zen”. Baita musika bera ere. “60ko hamarkadan pop musika euskaraz egitea... hitzak agian ez dira politikoak baina, nire ustez guztiz kontu politikoa da. Oso gauza politiko zorrotza, ez bakarrik zapaltzailearen aurka, inguruan dagoen jendea astintzeko ere bai”.



Javier Madinak, Luis Amilibiak eta Zorion Egileorrek ere urratu zuten bidea euskarazko pop musikan. Aurreneko biek egindako bertsioak entzutekoak dira. Madinak *Raphaellen La canción del tamborilero moldatu zuen, Txanboliñ txikia* titulupean. Amilibiak berri, Bob Dylanen *Blowin' in the wind* ekarri zuen euskarara: *Entzun aizetan*. Egileorrek lau single eta LP bat argitaratu zituen, 1971tik 1977ra.

Dena ez zen ordea, kontrako jarrera belaunaldi zaharren artean. Nemesio Etxaniz apaizaren izena atera da Arantxa Gurmendirekin zein Jon Zelestinorekin berbetan. “Ikusi behar da ze gaitasun zeukan garai berrietara egokitzeko” dio Gurmendik “hari izugarri gustatzen zitzaion”. Zenbait talderentzat hitzak itzultzen edo egiten zituen Etxaniz zaharrak: Gurmendiren Bihurriak taldearentzat lehenengo eta Argoitia anai-arrebentzat zein Enarak taldearentzat geroago, batzuk aipatzearen.

Julen Lekuona ere euskal musika berritzearen aldekoa izan zen. *Zeruko Argian* azaldu zuen bere jarrera, *Euskal musika berri* artikuluan, 1966an. “Kantuak indar aundia duela iruditzen zait euskaldunen artean jendea pixteko. (...) Kantuak esan nai sozial bat izan bear du.” Eta garai hartan estetika berriarekin zegoen eztabaidari buelta emanez, honakoa gaineratu zuen: “Guk orain egin nai gendukeana da, euskal-musika eraberritu, gaurko eguneko euskaldunak bear duen jantzi berria eman. Jantzia esan dut eta ez izaera. (...) Gure naia da euskal musika zaharra estudiatu, aztertu ta ura sustrai bezela artuaz euskal musika berria egin”.

Lehen urratsak eztabaidaren erdian

1965 inguruan Donostiako Kursaal zaharrean eztabaidatzeko biltzen zirela azaldu du Arantxa Gurmendik. “Hemen Katalunian gertatzen zenaren influentzia handia genuen, eta han ere bazegoen talde indartsu bat musika berritzea helburu zuena beste gauza batzuen artean”. Musika berritzeaz gain, orokorrean, arte guztia eraberritzeko beharra ikusten zutela dio Gurmendik: pintura, antzerkia, eskultura, literatura, musika... Mikel Laboa, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi... Gerora Ez Dok Amairu osatuko zuten bakarlariak ere asanblada horietan biltzen ziren.

Lehenengo jaialdia Jarrai antzerki taldeak antolatu zuen Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ramon Saizarbitoriarekin aurkeztu zuen Gurmendik eta baita talde batekin modako kanta bat abestu ere euskaraz: *Chica ye-ye*. “Eurobisioa irabazi berri zuen”. “Jendea txunditza lortu genuen eta helburua ere bete genuen: euskarak denerako balio duela demostratzea”. Beldurra ere pasa omen zuten, kanpoan polizia zain zutela eta. Herrietatik berehala hasi ziren deika jaialdi hori nahi zutela esanez.

Ondoren Bihurriak taldea osatu zuten Beatlesen bertsioak euskaraz jotzeko asmoz. Hasieran Ez Dok Amairuren inguruan hasi zirela azaldu du Gurmendik, baina “gauza itsusiak” ikusi zituztela-eta alde egin zuten. “Inguruko batzuei ez zieten jotzeko aukerarik ematen eta batzuen lana izan zen suplentea izatea. Garai hartan espazioa ez zen suplenteentzako, baizik eta denok lehen mailan egoteko, eta gero aukeratuko zuen jendeak”.



Urretxindorrek taldeak 3 EP eta single bat argitaratu zituen 1969tik 1971ra bitartean.

Interpreteak eta lehen diskoak multinazionalekin

Victoria Eugeniako jaialdiarekin hasi zen zabaltzen musika “moderno” Euskal Herrian. Alta, lehen diskoak ez ziren iritsi 1968ra arte. Yon Libarona, Luis Amilibia, Urretxindorrek, Ameslariak, Jabier Madina, Argoitia anai-arrebak, Daikiris, Joxantonio Villar... horiek izan ziren euskaraz ye-ye diskoak grabatu zituzten lehen taldeak. Geroago iritsi ziren Zorion Egileor eta Enarak, esaterako. Hauetako asko Columbia, Cinsa eta EMI bezalako multinazionalek argitaratu zituzten bitarteko eta produkzio oso onekin gainera. Jon Zelestinok merkatuaren logikan ikusten du multinazionalek euskaraz diskoak kaleratzearren arrazoiak: “Kosta ahala kosta egiten dute euren bidea eta merkatua baldin badago beraientzat diskoak sortzen saiatzen dira. Kontua da, orokorrean disko ezezagunak direla”.

Disko horietan, garai hartan lehen postuetan zeuden kanten bertsioak daude grabatuta: The Turtles, Bob Dylan, Raphael, Beatles... Zelestinori kanta propiorik zergatik ez zuten sortzen galdetuta, honela azaldu du: “Ez da bitxia ze pop musika horrela zen garai hartan mundu guztian. Ye-ye musikan Beatlesak iritsi ziren arte gehiago zen interpretearen figura egilearena baino”. Ez da alferrik britainiarren *Yesterday* kanta ezaguna historiako kanta bertsionatuena, 3.000 inguru.

*Pop charts*ak interpretatzen zituzten beraz, eta horren arrazoiak musika kontsumitzeko ohituretan egon daiteke. “Boladak etortzen ziren eta irratian entzuten zutena zen gero jotzen zutena”, dio Jon Zelestinok. Arantxa Gurmendik ere hala dio, “orduak jende askok ez zuen *tocadiscos*ik. Irratia juxtu-

juxtu. Komunikazio handiena zuzeneko zen, jaialdietan, berbenetan, festetan”.

Etendako lerroa?

Diskoak kaleratu zituzten, Aturritik Ebrorainoko agertokiak zapaldu ere bai. Gerora Euskal Herrian sortu den musikan garai hartako taldeek eraginik izan duten galdetuta Arantxa Gurmendik ez du zalantzarik: “Nik uste dut horren ondorio izan dela gaur egun dagoen musika guztia.

Orain pentsa zenbat talde dauden era guztietakoak euskaraz”.

Jon Zelestino ez da iritzi berekoa. “Musika eta estetikaren aldetik ez dute batere eraginik izan hemen. 60ko hamarkadako euskal musikari baten izena galdetuz gero, inork ez dizu esango hauetako izen bat”. Gerora Ez Dok Amairuk guztiz estali dituen taldeak izan ziren. Pop musika rockaren eboluzioa ulertzeko ezinbesteko piezatza ikusten du orde iruindarrak. “65ean mod, beat, ye-ye edo ritm&bluesa jotzen ari ziren musikari asko lau urte geroago rock psikodelikoaren mobidan zeuden sartuta, hiru urte geroago, rock gogorren mobidan... Badago oso lerro lineal bat”. Hemengo taldeek oso bizitza “efimeroa” izan zutela gaineratu du, pare bat single atera eta desagertu egiten ziren.

“Hemen haustura egon zen. Errobi, Anje Duhalde, Michel Ducau... beste mobida batetik datoz. Ramones eta The Clash-ek beraien gurasoen garaiko taldeen bertsioak egiten zituzten –beraien estetikara moldatuak-. Hemen, Kortatu edo Tijuana In Bluek ez zuten halakorik egin. Ez zuten ildo hori jarraitu”. ■

“60ko hamarkadan pop musika euskaraz egitea... Hitzak agian ez dira politikoak, baina nire ustez guztiz kontu politikoa da”

JON ZELESTINO, MUSIKARIA

iRuNaZaRRa
TaBeRNa • JaTeIXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.es · www.irunazarra.org

Literatura

Fermin Erbiti

«Primo Leviren antzeko kasuak toki guztietan daude»

Fermin Erbitik (Iruñea, 1964) X. Juan Zelaia Saria irabazi zuen iaz *Hiru koaderno txiki* saioarekin (Kepa Larrearen *Itzalak harturik* lanarekin *ex aequo*). Kazetaritzako hainbat esparru –prentsa, irrati eta telebista– landu ditu. 1993tik Nafarroako Comptos Ganberako komunikazio arduraduna da.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban

“USTEKABEAN HARRAPATU NINDUEN Juan Zelaia Sariak. Azken bi urteetan testuak egin aritu nintzen, lasai, helbururik gabe... Zelaia sariaren deia ikusi nuen prentsan, eta testu horietatik gehienak pixka bat txukundu, antolatu, moldatu eta aurkeztea erabaki nuen. Nahiz saririk ez eman, ezagutuko dira eta agian argitaratuko dute pentsatu nuen” erran digu Fermin Erbitik solasaren abiaburuan.

Zeren ondorioz erditu duzu *Hiru koaderno txiki* saioa?

Testuen abiapuntuak liburuetan aurkitu ditut, baina ez denak. Badaude pelikulak ere, eta kantak edo norbait entzundako esaldi baten segidako gogoetak. Gehienak liburuetatik ateratako esaldiak dira. Hortik tiraka hasi naiz, nire gogoetatxo eskaini asmoz, azken punturik jarri gabe betiere, baina nire ekarpena egiteko asmotan. Liburu gehienak liburutegietan hartu nituen. Horietan ordea ezin nituen azpimarrak egin edo oharrak idatzi, itzuli behar baintuen. Liburuan oharrak hartu zalea naiz. Orduan, oharrak hartzeko hiru koaderno txiki inguratu nituen. Hiruak betetzearan “agian fundamentuzko zerbait atera daiteke horietatik, hasi lanean” esan nion nire buruari.

Liburutegietara joateko joera duzu, jendeak ere ba al dauka ohiturarik zure inguruan?

Liburutegi nagusia hementxe zegoen, Comptos etxearen ondoan; San Frantzisko plazan. Niretzat primeran. Iruñeko Mendebaldera eraman dute orain gutxi, beste pun-



“Hiru koaderno txikin dauden testuen abiapuntuak liburuetan aurkitu ditut, baina ez denak, badaude ere pelikulak, kantak edo norbait entzundako esaldien segidako gogoetak”.

tara... Nik liburutegia betidanik erabili izan dut, asko. Esango nuke jendeak erabiltzen duela, eta gauza txukunak daudela, beste gauza bat da nola zaintzen dituzten liburutegiak. Nik liburuzain on batzuk ezagutzen

ditut, besterik da politikariek ere zenbateraino hartzen duten kontuan liburutegia. Azken finean, inbertsio horrek ez du boto askorik ematen, ezta?

“Txunditzen gaituzten ideiez beterik daude liburuak” esana duzu inoiz.

Liburuak aukera ematen dizu jende interesgarri asko ezagutzeko. Esaterako, Primo Leviren liburuak irakurri eta gero zera pentsatu nuen: Iruñean –eta Nafarroan oro har– haren moduko idazleak izanen ditugu, ez beharbada haren kalitatearen mailakoak –naziei buruzko istorioen mailakoak–, baina 1936ko gerran Nafarroan zer gertatu eta idatzi zen interesgarria da oso. Irabazleen eta galtzaileen kontuak... Gerran batzuk liburu zaleak ziren, irabazleen artean ere bai. Falangista batzuk kultura maila altukoak ziren, eta badaude haien lekukotasun interesgarriak. Kontrakora joan gaitezke, eta galtzaileek zer esan zuten ezagutu.

Badago zer arakatua, alegia.

Bai. Batzuek gauza batzuk ahaztu nahi dituzte egun... Esaterako hor daude Rodeznoko Kondea edota Galo Viergeren [*Los culpables*; Pamiela] bizitzak, zinez interesgarriak dira. Viergek kontatutako honek hunkitu ninduen: Aste Santuko ostiralean prozesioa gelditzen da San Anton karrikan; birjina bertan zegoen, *La dolorosa*. Gelditzen da, eta emakume erdi erotu batek beste bati esaten dio “zuk negar egiten duzu seme bat hil dizutelako, bada niri bost seme hil dizkirate”. Jendea belauniko zegoen. Izugarria. Alegia, sufrimendua izan zela esan digute, baina alde bakoitzak nola kontatu duen, edo irabazleek nola islatu duten. Ze, gauza bera zen, baina bakoitzak bere modura kontatzen du. Hori ezagutzea oso inportantea da. Garcia Serranoren kasua ere



hor dago: iruindarra, bere semeak liburu interesgarria egin zuen, sari bat eman zioten *La gran esperanza* liburuarengatik. Primo Leviren liburuaren eskizari ezagutu nituen idazle hauek. Alegia, Primo Leviren antzekoak toki guztietan daude.

Prentsarekin kritikoa zara. Espainian kazetari oro-jakile asko al dago?

Kapuscinskiren pasartea aipatzen dut horren harian: “Kazetari onak pertsona umilak dira, bestea errespetatu eta jarrera hori erakusten dutenak...”. Alegia, irratia edo telebista piztu eta –prentsan ere– enpatia galtuta dago, eta batez ere espainiar komunikabideetan. Ni harrituta nago. Fakultatean garai batean esaten ziguten “Espainian ez dago prentsa horirik, egunkari guztiak kalitatezkoak dira. Britainia Handian adibidez egunkari batzuk ez dira serioak...”. Baina, hemen ona omen den horren barruan, zer ez ote dago, ezta? Hedabideetako tonua batez ere mezua da askotan.

“Iruñean denok elkar ezagutzen dugu baina ez dugu elkar maite, ez dago gehienok batuko gaituen zerbait”



«Kazetaritzan edukiak alboan utzi dira»

Kazetaria zara ofizioz, komunikazioaren arloan diharduzu egun. Irratian aritu zinen iraganean...

Aurren-aurreneko saioa Radio Nacionalen egin nuen (irribarre egin du). Bi orduko saioa egiten genuen egunero euskaraz. Harrigarria zen orduan, baita gaurtik begiratura ere. Halere, *Navarra Hoy* egunkarian hasi nintzen kazetaritzan. Gustura aritu nintzen, eta ondoren *Telenavarran* ere bai. Ni naiz, Iruñean, Espainiako TVEn saio bat euskaraz egin duen bakarra teknikari guztiak erdaldunak izanda (irri egin du). Bestalde, geroago, Euskadi Irratian hiru astetan behin *Sormenari lebio* literatur-saioa egin genuen Jon Alonso eta biok. Euskalerrria Irratian jardun dut eta Euskadi Irratian kolaboratzen segitzen dut. Irratia gustuko hedabidea daukat, bai.

Nola ikusten duzu komunikazioaren esparrua. Zerk libra gaitzake (in)komunikaziotik?

Luze litzateke taxuz horretaz aritzea. Nire ustez azkeneko urteotan teknologiararen aldeko apustua egin da, eta ondo dago, denok dakigu hori garrantzitsua dela. Pentsa, gu idazmakina eskuetan hartuta joaten ginen fakultatera, baita *Navarra Hoy* egunkarira ere. 1986az ari naiz, ez da aspaldiko kontua ere. Hau da, komunikazioaren esparrua asko aldatu da urte gutxitan. Azken urteetako iraultza teknologikoari esker kazetaritza ona egiteko aukerak ditugu, beste kontu bat da, edukiak nola lantzen diren. Edukiak, neurri batean, alboan utzi dira. Eta halaber, penagarria da kazetarien lan egoera, lotsagarria. Bestalde, prentsarekoetan maila handiko kazetaririk ez da ikusten, eta hori tristea da. Gure kazetariaren isla da hori, kazetaritza egiteko esperientzia pixka bat duen jendea behar baita, eta oroimena ere bai.

“Monterrosok ez du idazten, zuzentzen du”. Oscar Wildek koma kendu du goizean testutik eta arratsaldean ipini berriz. Zein da zure esperientzia idaztean?

(Irri egin du) Bada, testua behin eta berriro hartzea eta ekitea. Niri asko gertatzen zait hori. Prentsan ari nintzenean, egunkarian komekin eta besteekin denbora piloa ematen nuen. Biharamunean testua berrirakurri eta “zergatik kendu nuen koma hori?” pentsatzen nuen. Hamaika buelta emanda ere, hau kendu eta hori aldatuta ere, hala gertatzen da. Idazte prozesua ez da inoiz amaitzen, inprimitutakoa beti aurkitzen duzu akatsen bat edo beste.

Aldartearen arabera ere ezberdin idazten da...

Idaztea bera da borroka. Batzuetan uste duzu gauza biribila idatzi duzula, baina beti aurkituko diozu zerbait, beti. Horregatik Monte-

rrosorena asko gustatu zitzaidan, baita Wilderena ere.

Ironia puntua ere badauka zure saio honek.

Ironia oso garrantzitsua da bizitzan eta literaturan ere bai, noski. Borgesek zioenez, garrantzitsua da bizitza ironiaz hartzea edo egoeretatik aldentzea, zure burutik aldentzea. Alegia, nik alde egin behar dut Ferminengandik, Fermin hori ikusteko. Hori egitea inportantea da, gauzak edota gertaerak ez direla guk uste dugun bezain larriak erakusten dizulako, ez direla horrenbesterako.

Pablo Antoñana izan duzu gogoan, besteak beste. Gehiago merezi izan zuen...

Pablo Antoñanaz zer esan. Nafarroan izan den idazle handienetakoa da, ongi frogatu du hori. Antoñanak oso ondo ezagutzen zuen Nafarroa, asko sufritu zuen. Bakarka ibiliz gero zein gogorra den bidea, ezta? Miguel Sanchez-Ostizek karrikaratutako azken liburuan –Nafarroaren egoeraz– hori esaten du. Hau da Iruñean denok elkar ezagutzen dugu baina ez dugu elkar maite, ez dago gehienok batuko gaituen zerbait. Antoñanak intolerantziak asko idatzi zuen. Badakizu koadrilaren babespean zein goxo bizi garen, eta Antoñana ez zen horrelakoa, oso kritikoa zen, eta literatura maila handikoa, eta hemen ez zitzaion merezi zuen kasu egin. Beno, Vianako Printzea Saria eman zion Nafarroako Gobernuak. Harrigarria, bere ibilbidea ezagututa.

“Elkarrizketatu eta elkarrizketagilearen adimen mailaz” idatzi duzu *Hiru koarderno txikin*, Salvador Panikerren *Cuaderno Amarillo* hizpide kasurako...

Oso interesgarria da besteek nola ikusten gaituzten ezagutzea. Duela gutxi bidali didate kritika bat, filosofo batek egina, nik ezagutu ez nituen gauzak ikusi zituen berak nire testuetan.

Bere liburua ezagutzen ez zuen euskal idazlearen pasadizoa ere ekarri duzu. Gure munduko marka mundiala.


Bai. Institutuko irakasleak ikasleei euskal idazle baten liburuaz pare bat folio idazteko eskatu zien. Mutiko batek –hamazazpi urtekoa– idazlea auzokoa zuenez, etxera joan zitzaion bisitan. Liburuaren gakoak egilearen eskutik idatzi eta lana irakasleari aurkeztu zion. Irakasleak esaten dio ikasleari: “Bost jarri dizut, eta oso eskuzabala izan naiz, ez dituzulako liburuaren gako nagusiak ulertu”. ■

argia.com Ez dira hemen bukatzen Fermin Erbitik kontatu dizkigunak. Webgunean daukaguz elkarrizketaren bertsio luzea.

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Komunetan

Tolosan gertatua. Miren kiroldegiko komunetara joan da. Lehen kabina okupatuta dagoenez bigarrenean sartu da, eta komunean eseri orduko ahots bat entzun du:

- Kaixo! Zer moduz?
- Ondo! –erantzun du harririk, elkarriketa bat hasteko lekurik onenean ez daudela irizita.
- Dena ondo al doa?
- Baaa, bai... bai...

- Aspalditik al zaude hor?
- Ez, ez... Oraitxe etorri naiz!
- Ta, zer asmotan zabilta?
- Beno... –lotsa-lotsa eginda– Kaka egitera etorri naiz.

Eta orduan:
– Barkatu Koldo, baina beranduxeago deituko dizut berriro, aldamenean dudatan txolin bat zuri egiten dizkizudan galdera guztiak erantzuten ari zait eta!

Soluzioa

	M		A							A	B	U					
	P	I	N	T	Z					A	N	T	Z				
	G	O	S	E						Z	E	R	O	K			
	T	U	N	E	L	K	E	T	G	O	S	A	R	I			
	E	L	K	E	A	K	T	E	U	K	O	T	A				
									A	K	T	E	N	T	E	L	
	B	E	K	A	I	Z	E	G	O	G	O	A					
	S	A	L	N	E	U	R	R	I	U	S	I					
	M	N	D	E	I	B	E	A	R	I	N	T	E	L	K	E	A
	M	A	D	A	R	I	A	G	A	I	Z	E	G	O	G	O	A

Liburuak

KRITIKA

Pasio hutsa.

Annie Ernaux (Itzulpena: Joseba Urteaga).
Igela, 2002. 96 orrialde. 7 euro.

Hemeroteka

Aritz Galarraga



Presentzia edo absentzia

KOLPETIK HIRU IZAN ZIREN: *Pasio hutsa*, *Lekua* eta *Gertakizuna*, hirurak ere Igela argitaletxean eta Joseba Urteagak itzuliak. Annie Ernaux idazleak loraldi labur baina intentsu hori izan zuen euskaraz, 2002-2003an, gerora, eta tamalez, jarraipenik izan ez zuena. Artean usaindu gabeko urrina ekarri baitzuen eta egun oraino gaurkotasuna baitute liburu horietan egiten diren planteamendu literarioek. *Pasio hutsa* nubelakoek, esaterako. Ez hainbeste delako autobiografikoa edo autofikziozkoa edo dena delakoa. Bost axola. Liburua, liburu oro, idazlearen biografiaz haraindi irakurri edo gutxienez funtzionarazi beharko genuke, artefaktu independente gisa.

Hori baino garrantzitsuago: lehen pertsonan idatzia, ez dakit testigantza, konfidentzia, kronika, baina pasio baten seinale pilaketa da testua, inbentario moduko bat, pasio horren errealtatea ulertzeko saiakera. Emakume baten pasioa du kontakizunak azaltzen (ezen ez esplikatzen), gizon batenganakoa, gizon ezkondu exekutibo arrotz batenganakoa. Pasioak dena hartzen dio, kronologia bera ezabatzeraino: gizonaren presentzia edo absentzia da denbora banaketa posible bakarra. Pasioa da beraz liburuko subjektu, pasioaren absolutua eta unibertaltasuna. Seinale, egite, gertaerak amaieraraino begiratzen dira hemen, xehe-tasun guztiakin, narratzaileak zentzua bilatu nahi dio bizitzaren ari denari eta aurkitu ere aurkituko dio azkenerako, “inongo zentzurik ez izatearena”. Kolpagarria da oso gai korapilotsuez zeinen gordin, zeinen sinple, zeinen zintzo ari den irakurtzea, irakurtzea nola ilunetan utzi ohi ditugunak ekartzen diren eguneko argitara, dela sexuaz, dela beste batenganako dependenziaz, dela haurrak izatea, oposizioak gaingitzea, itsasoaz haraindi bidaiatzea baino inportanteago den arratsaldean gizon harekin ohean egoteaz ari denean. Gainera, etengabea da idazketa prozesuaren gaineko eta, ondorioz, idaztearen beraren gaineko hausnarra.


Liburu laburra da *Pasio hutsa*, ez akaso, eta eskerrak, boro-bila, bai erzduna, gorabeheratsua, kolpe batez irakurtzen dena, baina inor bere txokoan eroso uztea baino beste edozer lortzen duena. Bueltan datorrena ez dela xamurra, alegia. Bukatzeko, ez alferrik, korolario hau dauka: “Haurra nintzenean, niretzat luxua larruzko berokiak ziren, gau-soinekoak eta etxe dotoreak itsasertzean. Gero uste izan nuen bizimodu intelektualera eramatea zela benetako luxua. Orain pentsatzen dut badela ere gizon edo emakume batenganako pasio bat bizi ahal izatea”. ■

Erdi Aroko europar artearen esanahiaz

Gaiak argitaletxeak publikatu du euskaraz Georges Duby historialari frantsesaren *Europa Erdi Aroan* liburua, Julien Kaltzadak euskaratua. Lanaren helburua da arteak Erdi Aroko Europan izan zuen esanahia azaltzea, baita gainerako kultura adierazpenekin ukan zuen harremana esplikatzea ere.

Garai hartako artelan asko galduak dira baina zenbait maisulan iritsi dira gure garaietaraino, gizarte haren “handitasuna”-ren erakusgarri.

Alabaina, diosku Dubyk, handitasun hori Erdi Aroko gizartearen alderdi bat baino ez da, katedral, jauregi eta monastegiak basakeria gorrien estalki ere bai baitira, izan. ■



Europa Erdi Aroan.
Georges Duby.
Gaiak.
259 orrialde.
21 euro.

‘Egan’ aldizkariaren zenbaki berria

Literatura jorratzen du Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek publikatzen duen *Egan* aldizkariak. 2011 honetan kaleratu duten lehen zenbakian, ohiko moduan, artikulua ugari ekarri dizkigute. Besteak beste, Iñaki Zubeldiak euskarazko haur eta gazte literaturaren bilakaera aztertu du, Agosti Xahoren *Azti begia* testua ekarri dute egilearen bigarren mendeurrenean, Juan Luis Zabalak 2010ean argitaratutako euskal liburuaren zerrenda publikatu du, Luis Maria Mujikak Miranderen estetikaren beste alderdi formal batzuei buruz eskribitu du eta Pako Sodupe kontagintzari buruz argitaratzen ari den saiakera sakonaren bigarren atala eskaini du. ■



Egan.
Batzen artean.
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea.
268 orrialde. 18 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Vitesse.
Elfo Negro.
DDT/In My Heart Empire.
Iraupena: 34'19".
10 euro.

Iraultzaren alderdi pentsatua

BILBOKO TALDEAK ibilbide luzea egin du Elfo Negro izenpean, baina elkarrizketa hau egiterakoan jakinarazi didate disko honen izenburua izango dela hain justu beraien deitura berria: Vitesse. Hardcorearen koordinadatan mugitu izan da boskotea eta aspaldian Euskal Herrian hain presentzia urria duen estilo honi bizitasun handia eman diote, tarteka El Corazón del Sapo gogora ekarriz, ahots melodikoz kanta indartsuak eginez. Biniloan –CDa oparituta-

kaleratu berri duten disko honetan, baina, erraz antzematen da taldea aldatzeko prozesuan dagoela. Hala, orain nahiago dute stonerretik asko duen punk-rock ilun eta indartsua egitea; eta emaitza, orain ere, borobila da. Hitzei dagokionez, iraultza, aldaketa eta errebelia kontzeptuei buelta ematen diete. Punkak ez al du, bada, pentsamendua eragiten?

www.myspace.com/elfonegroxxx

Elfo Negro

«M15ari esker jende askok, alderdirik eta sindikaturik gabe, ekintza zuzena ezagutu du»

“Ekintza bukatzen da kamiseten josturen parera”. Iraultza telebistaz emango zutela hainbestetan esan digute, erosteko zain gaude-la?

Erosoena supermerkatuan saltzea litzateke, baina horrek esan nahiko luke kapitalismoak iraultza bereganatu eta garaile bilakatu dela. Hala ere, kapitalismoak erakutsi du errebeldea dena bereganatzeko gaitasuna duela. Horra hor punka, esaterako. Hortaz, Che Guevara edo beste edozein gudariren kamisetak janzteak ez du ezertarako balio, atzean jokaera koherentea ez badago.

M15a ere kontsumo-gai bilakatuko dela uste duzue?

Pasa gara indarrean dagoen legaltasunaren barruko mugimendu erreformatzaile izatetik kalea berrartze-
ra, eta hori oso interesgarria da: adibidez, etxeak hustea saihestea.



Gainera, jende askok, alderdirik eta sindikaturik gabe, lehenengoz asanblarismoa, ekintza zuzena eta elkartasuna ezagutu ditu.

Vitesse esamoldeak garrantzi handia du zuentzat...

Bai. Vitesse Elfo Negro izena ordezkaturiko du. Kanta berak interpretaturiko ditugu, energia eta intensitate berarekin, baina beste izerdi mota batekin. “Vitesse” ideologia,

abiaduraren eta azelerazioaren ideologia, leku guztietan aurki dezakegu; teknikaren garapenari eusten dion argudioa da. Abiadura horrek gure herrietako berezko kultura eta historia ezabatzen ditu, gure idiosinkrasia alegia. Horretan guztian pentsatzeko metafora da Vitesse.

Zuen kantuek Fer Apoak El Corazón del Sapo eta Kuraia taldeetan abesteko erak gogora ekartzen dizkit. Zer eman dizute talde horiek?


Ahots melodiak oso gustuko ditugu eta Apoaren taldeetan asko zaindu izan dituzte. Gainera, gaztelaniaz abestutako hardcore-punkean ezohikoa da. Aipaturiko taldeek erakutsi digute euskaraz zein gaztelaz kanta handiak egin daitezkeela; eta El Corazón del Sapo, bereziki, erakutsi zigun abesten duzun horrekin koherentea izatearen beharra. ■

Ezpalak

JON TORNER

Poesia 'Harrikadie' Ea herrian

JOSÉ ANTONIO CHACÓN




Eako (Bizkaia) Poesia Egunak *Harrikadie* izenburuean egingo dira aurten, hilaren 15etik 17ra bitartean. Herri-herri Emon Arnasa kultur taldeko kideek nabarmendu duten moduan, auzolanean antolatu dituzte hitzaldiak, errezitaldiak, kontzertuak eta gainerakoak. Euskal idazle ugarik parte hartuko du Poesia Egunetan: Fito Rodríguez, Beñat Sarasolak, Miren Agur Meabek, Jon Benitok, Oier Guillanek... Aurtengo edizioko gonbidatu berezia Elena Medel (Cordoba, Espainia, 1985) idazlea da (argazkian). Uztailaren 16an errezitaldia eskainiko du beste hainbat idazlerekin batera; eta 17an *Txindurriak eta Arrosak: Nire poetikaren bila, bost emakume poetaren bitartez* gaiak ariko da solasean Leire Bilbaorekin (Ondarroa, Bizkaia, 1978) batera. Musika emanaldiei dagokionez, larunbatean Joseba Tapiak kontzertua eskainiko du; eta igandean Maddi Oihenarten kantaldia eta Ramon Agirre eta Inazio Tolosaren errezitaldi antzeztua egingo dira. Egitarau osoa www.eakoudala.net webgunean kontsulta dezakezue.

Euskal presoek buruzko dokumentala

'KARTZELAKO POEMAK' izenburua izango du filmak behin behinean, eta Josu Martinezek egingo du, beste lau zuzendarirekin batera (euren izenak ez dituzte oraindik ezagutarazi); zuzendari bakoitzak, norbere ikuspuntutik, euskal preso baten historia kontatuko du dokumentalean. Trilogia moduko bat osatuko du Josu Martinezek film honekin, *Itsasoaren alaba* eta *Sagarren denbora* lanekin. Filma finantzatzeko, eta beharrezko azpiegiturak bermatzeko, bestalde, hainbat lagunek Zinez elkarteak sortu dute. Honelako proiektuek bide ofizialeetatik diru laguntzak jasotzeko dituzten zailtasunak ikusita, herritarrengana joko dute babes eta diru eske. *Kartzelako Poemak* 2012ko udaberrian esterinatuko nahi dute. Informazio gehiago www.zinez.net webgunean.

Raul de la Fuente

zuzendari nafarrak *Un día más con vida* pelikula errodatzeko asmoa du, Ryszard Kapuscinski (Pinsk, Bielorrusia, orduan Poloniaren parte, 1932 - Varsovia, 2007) kazetariak Angolan izandako esperientzian oinarrituta. Kapuscinski Angolako independentzia gerraren azken hilabeteetan izan zen Afrikako lurraldean, eta liburuan idatzita utzi zituen bizipen haiek pantaila handira eraman nahi ditu De la Fuentek. 2012an abiatuko den produkzioak animazioa eta benetako irudiak tartekatuko ditu eta Lisboan, Habanan, Varsovia eta Angolan errodatuko dute.



• Maider Lopez artistak Berrian:

«Hiriaren diseinuak eragina du gure jarreretan eta elkarrekin harremanetan jartzeko dugun moduan. Bideak markatuta, nondik ibil gaitezkeen zehazten digute; jartzen zaizkigun aulkiekin, non eser gaitezkeen... Nik proposatzen dudana alderantzizkoa da. Jendeak egiten duen hiriaren erabilerak gidatu beharko luke hiriaren diseinua (...) Pibote politika da orain nagusi. Jadanik debekua ez da lurrean egindako marra batez adierazten. (...) Hirigintza politika debekuaren aldekoa da, besteen jarrerak zuzentzearen aldekoa. Nik aldarrikatzen dut jendeak bere ingurua aldatzeko duen gaitasuna».




ADN

Maider Lopez donostiarrak jaso du Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Gure Arteak sarietako bat, sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik.

• Miren Urbieta sopranoak Irutxuloko Hitzan:

«Jende askok ditu musika klasikoaren inguruko aurreiritziak. Operaren inguruan ere bai, eta zarzuelari dagokionez are gehiago. (...) Zarzuelak entretenitu egiten du. Opera bat osorik kantatuta, eta musika landuarekin, gogorra izan daiteke. (...) Zarzuelan beti gertatzen da zerbait barregarria».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

UNAI BREA

Ingeles kaxkarra abantaila denean

O Brother, where art thou? filmaren soinu-banda.
Hainbat egile. Mercury Records. 61 minutu. 2000.

COEN ANAIEN pelikulekin seme-alabekin bezala gertatzen zait: arreata handiz begiratu behar diet akatsen bat ikusteko, eta hala ere ezin. Beldur naiz, hortaz, Minnesotakoenganako miresmenak haien lanaren kritika zintzoa egitea eragozteaz. Eta horregatik aipatzeke utziko ditut, oraingoan bederen, *O Brother!* film luzearen alderdi bikain gehienak, eta haren musikari lotuko natzaio bakarrik.



Hein handi batean *O Brother!*-en soinu-bandari esker deskubritu nuen —eta harekin liluratu— bluegrass musika, country-aren azpisail bat. Seguruenik antzeko zer edo zer jazo zitzaion beste askori; AEBetan beretan, genero horri bultzada handia eman zion pelikulak, kritikarien esanetan.

Ez dakit filmaren eragin horri zor zaion, baina bertan entzun daitekeen kantetako bat euskaratua du Pil Pil taldeak. *Hegaldaka* da euskal bertsioa, eta baxenafarren disko bakarrari izena ematen dion kanta da, hain zuzen. Estatubatuar jatorrikoak, berriz, *I'll fly away* du izenburua. Itzulpen zuzena, itxuraz. Baina ez fidatu itxurekin: euskarazkoak preso baten askatasun ametsez dihardu, ingelesezkoak Jainkoaz. Horretaz konturatzean ohartu nintzen bluegrassak Bible Belt delakoa daukala sorlekua. Pelikula-lako beste abesti batzuen hitzak Interneten bilatu, eta bat baino gehiagotan topo egin nuen AEBetako hego-ekialdeko fundamentalismo protestantearekin.

Iban Zalduak esan berri du, aldizkari honek egindako elkarrizketan, pop kanta askoren hitzek ez dutela gutxieneko kalitate labelik, eta musikari esker salbatzen direla. *O Brother!*-en kanten hitzen kalitatea ez dut nik epaituko, oraindik ere oso gustukoak izatea ahalbidetu didan arrazoi beragatik: nire ingelesa ez da hain ona, kasu honetan zorionez. ■



Atxaspi Hotela




Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Ihesi

IBAN ZALDUA

Euskal Herria ezagutuz:
Gasteiz



Itzuli bat Alde Zaharretik

Edozein puntu izan daiteke egoki Gasteizko Alde Zaharraren bisitari ekiteko: azken batean, elipse forma dauka kaskoak –propaganda turistikoaren “almendra” famatua–, eta elipsea zirkuluaren aldaera bat besterik ez denez, zilegi da, geometriaren legeen arabera behintzat, nahi den lekutik hastea, nahi den lekuan amaitzea bezainbeste.



PEDRO TAPIAS - BASKIMAGEN



GURE ITZULIA hasteko, Zapatari kaleko 74. zenbakian kokatuko gara, eta han gaudela Rikardo Arregi Diaz de Herediaren *Kartografia* liburua motxilatik atera eta *Onassis taberna* poema irakurriko dugu, ozen edo gure baitarako: “Orain dela egun pare bat / Zapa kalean nenbilela / taberna baino etxea / genuen zulo ilun hura / suntsiturik ikusi nuen / –aurrera doa hirigintza–. / Hondakinetan sumatzen da / oraindik non zegoen barra, / non komuna, non biltegia, / non banatzen zen zoriona, / nora zeraman eskailerak”.

Urte batzuk pasa dira poeta gasteiztarrak hura idatzi zuenetik, eta Onassis taberna zegoen lekuan, hots, eremuaren gainean erai-ki zen aire zaharreko etxe guztiz berrian, egun, lore lehortuen eta artifizialen denda bat dago, oso sinbolikoa iruditzen zaidan zerbait, nahiz eta ez dakidan zeren sinboloa izan daitekeen, zehazki. Agian auzo honen aldaketa-prozesu sakonarena: izan ere, Zapan gaude, 1980ko hamarraldiko mobida gasteiztarraren erdigunean, Arregiren *ubi sunt*-ak gogorarazten zigunez. Eta, denboran bezala, atzera egingo dugu Zapatik, hegoalderantz, eta jais-ten hasiko gara. Egunez etorri gara, eta lekua iluna irudituko zaigu, ziurrenik, nahiz eta zerua oskarbi egon: Gasteizko kale ospelene-takoa da Zapa, eta agian horregatik bihurtu zen, garai batean, txabiske bazterrenekoen babesleku. Haien arrastoak ikus daitezke ezker-eskuin: pubak eta disko-barak, une honetan itxita daudenak, nahiz eta onartu behar den asteburuetako gauetan ere –gehie-nek orduan irekitzen baitute, soilik– ez dau-dela duela 20 edo 30 urte bezain animatuak. Eta dena museizatzeko bulkadaren lekuko gisa, Harategien kantoiko mural pop handia dago, 80ko hamarraldi hartako erreferentziaz bete: “Cicatriz”, “Hau dena aldatu nahi nuke”, “En la Kutxi, en la Zapa, la gente dura rula, rula, rula, rula”...

Goiko irudian, Eskoriatza-Eskibel jauregia eta Gasteizko harresiaren zati bat, turisten eta Erdi Aroko nostalgikoen omenez egindako berreraikuntza abila. Aurreko orrialdean, Bakardade kantoia, Alde Zaharreko txokorik ederrenetarikoa... malda mekanikoak jarri ez balituzte.

Zaparen amaierara iritsi gara, Andra Mari Zuriaren plazara. Han ere nabaria da egunera-tze-ahalegina: antzinako lorategi kaxkarrak kendu, granito grisez estali, eta “plaza gogor” bihurtu dute; espazio zaharretik kontserbatu duten gauza bakarra Gasteizko batailaren –eta Espainiako independentziaren– omenezko eskultura-multzo bertikala da, XX. mende hasierako gustu txarreko tartatxo, dena ponpa eta zirkunstantzia. Lehen ez zitzaidan plaza gustatzen, eta orain, irmotasun gehitu horrekin –eta, guraso garenontzat, umeentzako ordezko zapatez eta galtzerdiez hornituta ateratzera behartzen gaituzten iturritxo gogaikarri horie-kin–, are gutxiago. Egunez, baina: gauez, ilumi-nazio artifizial koloretsuaren mirariak, plazak beste itxura bat hartzen duelako, egunez baino goxoagoa, paradoxikoki; merezi du orduan bisitatzea, eta terrazean aritzea, eguraldiak laguntzen badu behintzat.

Hedegileak kalea, gentrifikazioaren ikur

Plazan gora egin eta kontrako noranzkoa har-tuko dugu, oraingoan Hedegileen kaletik aurre-ra. Kale batek sinbolizatzen badu udaletxeak Gasteizko Alde Zaharrekin egin nahi duena, haxe da: Adolfo Domínguez, umeentzako arropa-denda pinpirinak, *delicatessenak*, disei-nuzko tabernak, haletako batzuk diru publiko-en laguntzaz irekiak... Lehen –eta oraindik ere– Dato eta San Antonio kaleetatik ibiltzen ziren gorbatadunek eta takoidunek bisitatuene-tako bat, zalantzarik gabe, La Malquerida da, Donostiako A Fuego Negroen imitazio bat, frankizia kasik, euskararekiko tratamenduan izan ezik (noski). Eskerrak pixka bat aurrerago betiko Zuloa komiki liburu-denda bezalakoek eusten diotela, auskalo nola, kalearen gentri-fi-kazio ahalegin uniformizatzaileari.

Bakardade kantoira iritsi gara, Gasteizko txokorik ederrenetariko bat... udalari bertan malda mekanikoak eraikitzea bururatu zitzaion



ALEX LARRETXI

arte. Ez diot trepetari erabilgarritasunik ukatu nahi, eta ziur nago, adinean aurrera egin ahala, gero eta ezinbestekoagoa egingo zaizkidala. Baina azpiegiturak ikusgarri egin nahi izatearen gure agintarien tema horrekin, maldei kristalezko eta altzairuzko estalki arranditsu eta beti zikin bat erantsi eta hiriko panoramika erromantikoenetako bat hondatu dute: sotilezia handiagoa eskertuko zukeen parajeak. Ederra izaten jarraitzen du, hala eta guztiz ere.

Maldaren buruan Montehermoso jauregia dago: komentu izateko jaioa, XVI. mendean, finantzatzen zuen jauntxoaren emazteak ederegia iritzi eta familiarentzat gordetzea erabaki zuen –haren ordezkera irazi zuen komentu aszetikoagoa ikusgai dago, oraindik, Pintore kalearen buruan, Gasteizko *Marraketx txiki* koloretan—. Egun duen itxura, edonola, XIX. mendeko berregituraketa à la Viollet-le-Duc baten ondorio da, eta are kontraste handiagoa egiten du barruan babesten duen arte garaikideko zentroarekin, Euskal Herriko abangoardistenetakoa, arte feminista eta *queer*-aren aldaeretan espezializatua, eta generoen arteko parekidetasuna zaintzen duen bakarrenetakoa; horrek guztiak, auskalo zergatik, EAJren aurkakotasuna azaleratu du azken udal hauteskundeen hariara, nahiz eta, demagun, Getariako Balenziaga Museoarena baino askoz ere kostu baxuagoe-kin ateratzen den aurrera, eta diru-eskandalurik gabe gainera... Nahiko maiz aldatzen dira ber-

Harategien kantoiko murala, 80ko hamarraldiaren erreferentziaz bete: "Cicatriz", "Hau dena aldatu nahi nuke", "En la Kutxi, en la Zapa, la gente dura rula, rula, rula, rula"...

Etengabe obretan, etengabe bisitagarri

Pixka bat aurrerago, edonola ere, Gasteizko bisitariarentzat ezinbestekoa bihurtu den Santa Maria katedral zaharra dugu, etengabe obretan eta, aldi berean, etengabe bisitagarri. Onartu behar da katedral gotikoaren zaharberritze konplikatuari ekin ziotenek asmatu egin zutela lanek azaleratzen zituzten aurkikuntzak eta sekretuak zuzen-zuzenean publikoari erakusteko erabakia hartu zutenean. Zaharberritze kanpaina bakoitzean erakusten dena ez da beti berdina, eta bisitaren interes-maila, beraz, alda daiteke urte batetik bestera, baina beti da ikusgarria. Gainera, aukera dago bisita euskaraz egiteko. Sarrera, dena dela, ez da egiten obrek, bizilagunen etsipenerako, osoki okupatu duten Santa Maria plazatxotik, beherago dagoen Bruileriakoatik baizik.

Bruileria plazak ere merezi du ikustalditxoak: bertan daude Gasteizko eraikin zibil zaharrenetakoa –tartean Portalón jatetxe famatua, ondo hornitutako poltsikoen eskura— eta Anda leinuaren dorrea, ez horren berriztatua eta, hortaz, benetakoagoa, akaso, beste zenbait baino. Bruileria plazan datza, bestalde, hiri honen gustu literario eta estetikoaren erakusgarri bikain bezain tristea den Ken Folletten omenezko brontzezko estatua. Haren babespean biltzen dira astebururo, metafora esanguratsua osatuz, Gasteizko hainbat gazte *litroen* erritoren inguruan, gauza benetan heroikoa



ALEX LARRETXI



ALEX LARRETXI

urtearen parte gehiengan, hiriak pairatzen dituen gaueko batz besteko tenperaturak kon-tuan hartuta.

Orain kontrako noranzkoa hartuko dugu, eta hegoalderantz joko dugu Aiztogileen kale-tik, Kutxi famatutik. Gasteizek nonbait hartzen badu herrixka baten eitea, hemen da. Zapa bere betidaniko lehiakidea ez bezala, Kutxi argia da, zaratsua, astean zehar ere irekita egon ohi diren tabernez eta horiek hornitzen dituzten banaketa-kamioiez josia, eta abegiko-rra –nahiz eta, ziurrenik, Dignidad y Justicia-ko partaide batek, demagun, ez zukeen agian adjektibo hori erabiliko—. Kutxi, edonola ere, ez da jada garai batean bezain monolitikoa. Han dago, besteak beste, BiBat Museoa, Four-nier naipen museoa eta Arkeologiakoa biltzen dituen, Bendañatarren XVI. mendeko jaure-giaren eta Patxi Mangado arkitektoaren eraikin koadrangular eta garaikidearen arteko fusio eztabaidagarria proposatzen diguna. Eta, bes-talde, Kutxin bertan joan dira sortzen, edo garatzen, “betiko” tabernen ondoan, gure bur-gestxikitasun gastronomikoaren onarpenaren lekuko diren bestelako lokalak, jan-edanaren kalitateari eta are aurkezpenari garrantzi handi-xeagoa ematen diotenak, nolabait esateko, baina beti ere gorago aipatutako Hedegileen kalean gertatutakoa baino forma *naturalago-an*, hau ere nolabait esateko. Nonbait bazkaldu

Ezkerrean, Anorbin kantoia; Gorbeia ere atzeman daiteke urrunean. Eskuineko argazkian, berriz, Aiztogileen kalea, Kutxi ospetsua. Gasteizek nonbait hartzen badu herrixka baten eitea, hemen da.

edo afaldu nahi izanez gero, prezio-kalitate erlazio onarekin alegia, hemen hasiko nintzate-ke bila.

Eta amaitzen joateko, Kutxitik gora doan edozein kantoitatik abiatuko gara –San Fran-tziskorenetik, Santa Anarenetik, San Markose-netik–, berriz ere Hedegileen kalera jaisteko eta, ezkerretik edo eskuinetik joanda, gutxi gorabehera haren erdian dagoen Anorbin kan-toira iristeko. Arratsaldea da jada, gaua hurbil dago, eta handik, Gorbeia mendia ez ezik, Gas-teizko ilunabarrrik onenatariko bat kontenplatu daiteke. Kantoi horrek Zaparekin egiten duen izkinan zegoen, hain zuzen ere, idatzi honen hasieran aipaturiko Onassis taberna, Rikardo Arregiren poemakoa, eta bertan lore sikuen eta artifizialen denda hura... itxita eta alokairu eskaintzan dagoena egun, Alde Zaharreko denda txiki askoren patuari jarraiki, merkataritza-zentro handien garaioan. Egunen batean, akaso, idazle batek ere dedikatuko dio poema bat, Arregik egin legez, lore lehorren denda hari, eta beste doinu mota bat intonatuko du. Hiriak, eta hirietako alde zaharrak, zorionez eta zoritxarrez, etengabe ari direlako aldatzen, are haiek garai edo ideia jakin batean finkatzeko ahalegin guztien kontra, eta haiei buruz egin dezakegun unean uneko deskribapen oro iraungitzera kondenatuta dago. Artikulu honi berari gertatuko zaiona, hain zuzen ere... ■



Osasuna

JABIER AGIRRE

Mamografien argi-ilunak (diru kontuak tarteko)

HERRITARREN KULTURA SANITARIOA nabarmen handitu den arren, eta osasun-adituek emandako aholku eta gomendioei normalean nahiko ondo jarraitzen zaion arren, duela gutxi irakurri dudan datu batek kezkatzeko arrazoia eman dizkit. Gure artean arrisku-adinean dauden ehun emakumetik hamazazpik ez omen dituzte mamografiak erregulartasunez egiten, Minbiziaren kontrako Elkartearen Behatokiak argitaratutako txostenaren arabera. Eta hori akats handia da, izan ere mamografia ezinbesteko tresna baita bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarra egiteko.

Inongo zentzurik ez duen horrelako zerbait gertatzeko arrazoiak bila hasi, eta ez nuen taxuzko erantzunik aurkitzen. Nire iritzia da gaur egun emakume gehienek artean aski zabaldua dagoela mamografia proba baliaigarria dela bularreko minbiziak garaiz atzemateko, eta proba hori emakumeen adin-tarte gero eta zabalagoan hedatu izanak zerikusi handia duela bularreko minbiziak jota dauden emakumeen biziraupen-tasan. Azken hamarkadan %27 gehitu da tasa hori, eta prebentzioak (ez abusatu koipeek, jaitsi pisua behar izanez gero, egin ariketa modu erregularrean, bularra eman zure seme-alabei) izan duen garrantzia baztertu gabe ere, detekzio goiztiarrak ezinbesteko papera jokatzen du gaur egun osasun-politika guztietan.

Dena den, adituek diotenez 40 urte bete aurretik mamografiak ez du argibide handirik eskaintzen, eta



DRUGSTER.INFO

hori oinarri hartuta politika sanitario guztiek edo ia gehientsuenek 40-45 urtetan jartzen dute emakumeetan mamografia proba diagnostiko bezala erabiltzen hasteko adin-muga. Erabaki horretan osasunari dagozkion arrazoiek adina pisu dute, nik uste, arrazoi ekonomikoek. Izan ere, gaur egun diruak agintzen du neurri handi batean osasunean, eta mamografia bezalako proba kontrastatu bat aurrez aipatutakoa baino adin-tarte zabalagoko emakumeetara zabaltzeak ekar dezakeen gastuari ez dio heldu osasungintza publikoak. Oraingoz, bederen.

Badira, nolahi ere, proba hori aurreratzeko arrazoi bereziak: familian zuzeneko aurrekariak (bularreko minbizia jasan duen amona, ama

edo ahizparen bat) izatea; aurreneko hilekoa 12 urte bete baino lehen eduki izana, edota azkenekoa 55 urte bete ondoren; eta gain-pisu esanguratsua izatea.

Mamografiak egiteko teknologia –bularretako irudiak lortzeko X izpiak aplikatzea besterik ez da, azken batean– asko hobetu da azken urteotan. Gaur egun, duela urte gutxi batzuk baino askoz ere proba eragin-korragoa eta erosoagoa da. Garai batean bularra bi aldiz “zanpatu” behar zen irudi egokia lortzeko. Orain, aldiz, mamografia digitalek “begirada” bakarrean hartzen dute hiru dimentsioko irudia. Eta ehungeruzaz “estalita” egoteagatik, lehen oharkabea pasatzen ziren tumoreak atzemateko modua ematen dute 3D-ko mamografia berriek.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Alimaleko poetak

INGURUAN HARRAPATZEN DUEN edozein animalia horditzen duen *Buddleja davidii*, tximeleten zuhaitzetik, tximeleten antza handiena duten animalia hordituzaleenetara, poetetara. Ez dakit zer kutsu hartu zidan Mertxek, lagun baten amak, orain dela batzuk nire urtebetetze egunean landare jakin bat oparitu zidanean. Poeten gogoko landare bat, mingranondoa edo granadondoa, *Punica granatum*. Muturraren aurrean daukat oparia, oparo loretan, eta neuk ere zurrurutun dut. Al-Andalusen poeten kuttunak ziren landareen artean begikoenetakoa omen. Hau da mingranondoaren loreaz poeta haietako batek zioenaren hemengo poeta baten itzulpen bikaina: "...lirudite emakume ederren eskuak, henez tindaturiko estatuak lege, edo hausterre koloreko usoen hatzak, edo tunika dirdiratsua agerian uzteko ireki diren kaxak".

Mingrana edo granada antigoaleko fruitua da. Asiako kultura zaharrenek gurtu zuten eta handik zabaldu zen mundu osora. Mingranak azal zikoitza du, iraupen luzekoa, eta barruan pipitta urtsu mordo bat, basamortuko infernuak edo itsasoaren egarriak

zeharkatu behar dituenarentzako pagotxa. Egiptoa- rrek hilobietan jartzen zuten, bidaiarako. Feniziarrek joaten ziren toki guztietara eramaten zuten eta erromatarrek "Punica" izena jarri. Bereberrek bere oho- rez izendatu omen zuten X. mendean eraiki zuten Granada hiria; loreen, uraren eta poeten hiria...

Osasuntsua da mingrana, oso. Barruko ale gorriak osorik edo zukututa hartzen dira. Nonahi topatuko dituzu bere aldeko arrazoiak. Bat aipatzearen, pipi- tten mami gorriak kiloko hamazazpi miligramo estro- na du. Hau emakumearen hormona garrantzitsua da, ezaugarri sexualak eta ugalketa organoen garapenean, adibidez. Mingrana maitasuna, ugalkortasuna eta oparotasunaren ikurra da herri askotan. Estronaren berri izan gabe, seguruenera, baina Txinan ezkonbe- rriari mingrana aleak oparitzen zaizkio ugalkortasu- naren adierazgarri, baita zori ona dakarren kolore gorria duelako. Javan ere haurdunaldiari lotutako ospakizunetan erabiltzen dute. Shakespearek ere zer- baitengatik jarriko zuen Julietari eskean joan zitzaion Romeo, mingranondo baten gerizpean.

Irakurleak galdezka

Arratsalde on, Jakoba. Lehenik eta behin, eskerrik asko ARGIAN astero egiten duzun ekarpenarengatik. A ze nolako euskara darabilzun! Eta zenbat ikasten dudan! Gure ingurumen "berdea" beste begi batzuekin ikusten dut irakurtzen zaitudanetik. Eta eremu horretan gure nortasunari atxikitze bidea egin ere... Kontua zera da: udarako baratze txiki bat atontzen dugu etxean; larunbat batez tomateak landatu, eta astelehen arratserako horitu edo zurituak zeuzkaten gehienek hostoak. Tomateak eman zizkidan baserritarrari gauza bera gertatu zaio sorta bereko aleekin, piper eta letxugekin ez ordea. Zer ote? Ureztatze sistema automatikoa jarri dugu aurten. Goizeko eta arratseko zazpietan oren erdi ureztatzen du hodi zilotuak. Simaurrarekin -behi gorotzez eta iratzez osatua- ongarritu genuen lurra aste bat lehenago. Eta "belar txar" direlakoak atera ez daitezzen oihal sendo batekin estali lurra. Gorrinarentzat goitzo eta agudotxo, ez? Zer egin? Garazi Cristobal (Urruña).

Kaixo Garazi, galdera interesgarria. Gorrina ez da, ezta gaitz edo izurritarik ere. Nire ustez arazo fisiologiko bat da argazkian ageri dena. Landareari ez dio ezerk eraso,



aldiz irauteko eta bizitzeko arazoak ditu. Nik uste, arazoaren jatorria bi hauetakoren bat edo bien batura da: ur gehiegia edota simaur berria eta behar bezala ondu gabea izatea. Ea zer deritzozun, esango didazu. Ongi izan.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Kilometro kontagailuen 2.000 urteko arbasoa

DOWNTOWN-GAL-CC BY SA



Egungo odometro digitaletaraino iristeko bidea duela 2.000 urte inguru hasi zen. Baina, tartean, asmakizunak geldialdi luzea egin behar izan zuten, XVII. mendean hainbat asmakizunak berrabiarazi zuten arte.

ALEXANDRIA (EGIPTO), K.O. I. MEN-DEA. Heronek (K.o. 10-70), *Dioptra* lanaren 34. atalean, odometroa deskribatu zuen, hau da, ibilgailu batek bidaia batean ibilitako distantzia adierazten duen gailua. Heronen odometroak ingeniariak mekanismo nahiko soila zuen barruan: gurdien gurpilaren indarrak zenbait engranaje mugiarazten zituen. Engranajeak hainbat bola biltzen zituen, eta plataforma biribil bhat, zulo bat zeukana, birarazten zuen. Biratzean bolak banan-banan zuloan erori eta, hodi baten bidez, kaxa batean pilotzen ziren. Bolak zenbatu, zegokion biderketa egin eta emaitza nahiko zehatza izan ohi zen. Antzinaroko odometroaren arabera, Hecatompylosetik Alexandria arteko distantzia, sistema metrikora ekarria, 850 kilometrokoa zen; distantzia erreala 852 kilometrokoa da.

Baina ez dirudi gailua Alexandria-ko Heronek berak asmatu zuenik. Vitruviok, K.a. 23. urte inguruan, antzeko tramankulua aipatu zuen.

Eta Estrabonek eta Pliniok Alexander Handiak K.a. IV. mendean egin-dako bidaien distantziak jaso zituzten; distantzia horien zehaztasunak neurgailu mekanikoren bat erabili zutela pentsarazten du.

Antzinako Txinan ere bazuten distantziak neurtzeko tramankulu bat eta, Erdi Aroan, Song dinastian, kontagailu nahiko sofistikatuak erabiltzen zuten. Bitartean, Europan odometroa geldirik egon zen, XVII. mendean Blais Pascal Antzinaroko asmakizuna hobetzen saiatu zen arte. Mende horren amaieran, Thomas Saveryk itsasontzientzako odometroa asmatu zuen, 1895ean Curtis Hussey Veederrek bizikletei aplikatu zien, eta 1903an Warner anaiek auto-entzako odometroa patentatu zuten.

1775ean Benjamin Franklinen posta bideak neurtzeko prototipo bat baino ez zuen egin. Baina asmakizunak ezagunaren biografia askotan berari egotzen diote ehunka urte lehenagoko asmakizunaren merezimendua.

Arrastoak

Urre sakratuak Bilbon distiratzten du

“URRE SAKRATUA. Kolonbiako arte prehispanikoa” izeneko erakusketa Bilboko Arte Eder Museoan dago ikusgai irailaren 4ra bitartean. 253 pieza bildu dituzte (maskarak, lepokoak, belarrekoak...) gehienak urrezkoak, baina baita zeramikazkoak eta harrizkoak ere, eta guztiak Bogotako (Kolonbia) Errepublikako Bankuaren Urrearen Museokoak. Pieza zaharrenek 2.500 urte dituzte eta berrienak europar kolonizatzaileak iritsi bezperakoak dira.

Pieza batzuk abstraktuak dira, beste batzuk figuratiboak: gizakiak, animalia errealek eta fantastikoak, naturaren elementuak. Eta bildumaren balio estetiko nabarmena izan arren, antolatzaileek aukeraturako piezen interes antropologikoa eta historikoa azpimarratu nahi izan dute.



BILBOKO ARTE EDER MUSEOA

Michel Etxebest

«Politikan kudeaketa behar da eta demagogia utzi»

Maule, 1961. Gotaineko Berruetan du jatorria. Laborari semea da. Gau-eskolan irakasle eta Seaskan engaiatua iraganean. Artzainak lantegiaren burua eta Mauleko auzapeza da. Ez da ezein alderdi politikori atxikia. Maulez, Zuberoaz, Euskal Herriaz mintzatu gara. Politikaz.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

ABERTZALETASUNA ETA EUSKARA ukan ditugu hizpide solasaren abia-buruan Mauleko auzapezarekin. Honatx egin diogun lehen galdera: Michel Etxebest abertzalea dea? Beste galdera batekin –irriñoa bisaian– erantzun digu: “Zer da abertzale izatea?”.

Zer da, bada, abertzalea izatea zuretzat?

Herriaren alde lan egitea da abertzalea izatea. Gero, abertzalea independentziaren edo autonomiaren aldeko borrokan ihardukitzea bada, enetzat horiek beste kontzeptu

batzuk dira eta nik ez dut horietan parte hartzen. Zuberoan lehen problema bizitzea da. Zuberoa berpiztea, jendetza beheiti baitoa, badugu zer bultzaturik eta ez dut uste “politika”n ari den joera batek edo beste eginen duen.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Maulen eta Zuberoan orobat?

Zuberoa tipia da: 13.000 bizizale dituzu. Horien herenak euskara ematen badu ere, zubereraz mintzo da. Herena 4.000 da, oso gutxi. Aski denez euskalki honen atxikitzeko? Ez dakit. Momentuz, hautetsiek eta

botere publikoek alde egiten dute egiturak laguntzen eta engaiatzen. Baina, hori euskararen abarretarik bat baizik ez da. Erran nahi baita, konparazione, irakaskuntzan, haurren heren bat eskola elebidunetan eskolatua da, baina horko haurrak ez dira euskaldunak ateratzen. Euskara entzuten dute, batzuek hitz egiten dute beharbada, baina ez dute ahalik eskolatik at mintzatzeko. Gizartearen aldetik presioa azkarra da, gizarte frantziarraren aldetik erran nahi dut. Ikastolako haurrek ere ez dute euskara garbi bat ematen eskolatik ateratzean, ez denek behintzat.



“Zuberoa biziko da Maule mugitzen bada”



“2002tik 2008ra legealdian ikusi genuen zer egin behar zen udalean. Mauleko Herriko Etxea berrantolatu dugu. Buru berri bat ezarri dugu eta 40 bat langile ditugu orain. Guk ez dugu hamar biderik, bat baizik: Zuberoa bultzatu behar dugu, Maule da udal handiena. Zuberoko jendetza-laurdena hiriburuan dago. 13.000 biztanletatik 3.500 biztanle hemen bizi dira. Maulek badu bere indarra. Zuberoa biziko da Maule mugitzen bada.”

Mauleko elkarteek atzerapena ukan zuten, diru laguntza berant hartu dute, azpiegiturretan bereziki. Lehen hiru urteetan egin dugu lan azpimarragarriena: kirol zelaia

antolatu ditugu. Kirol arloa azkarra da Maulen. Igerilekua, errugbi eta futbol zelaia, tenisa, eta petanka gunea bertutututugu. Kudeaketa normala izan da, baina berantarekin heldu da. Duela 40 urteko instalazioak ziren. Errugbiaren kasuan, Maule maila onean ari baita.

Bertze ekimen handi bi izan da: Aguerria fraide etxea erosi du Herriko Etxeak, handia da. 6.000 metro koadroko solairukoa, 100 bat hektarea lur dituen inguruan. Fraide etxea Herriko Etxetik 500 metrotara dago eta guk erosi ezean salduko zen. Ez genuen aukera galdu nahi. Herriak ez zuen dirurik, baina elkarte bat sortu dugu, ekonomia mistokoa, erran nahi du Mauleko herriak duela gehien-go, baina zuberotarrak berak ere sartu direla kapitalean, 200 bat zuberotar. Herrikoa elkarte ekonomikoaren moduko kudeaketa hemen konkretatua da, nolabait.

Beste arlo bat da espargintza. Eredu hori berrabiarazi nahi dugu, eta untsa biziare ere. Espargintzaren beherakadak biziki sufriarazi du Maule azken 30 urteetan. Malerusi, lantegi heste eta beste izan da, baina berriz ere esparginaren urguilua berpizten ari da, berriz ere gure historia izan dena berbideratu nahi dugu. Nafarroako Erronkari eta Aragoi gure historian daude, gure nortasunari lotua. Segitzen ahal dugula sentitzen dugu. Euskalduntasunaren bidean, esparginaren eremu ekonomiko hori bizirik dago oraindik ere”.

Egiguzu Mauleko potreta sozial bat, Zuberoaren testuinguruan.

Maulek bi itxura ditu. Batetik, Espainiako gerla zibilaren ondorioz, iheslariak heldu ziren, halaber, espargintzak langileria ekarraz zuen Nafarroatik –Erronkaritik– eta Aragoitik bereziki. Maule erdi “espainola” duzu: Lopez, Perez eta Fernandez asko dago hemen. Beste itxura Maule politikoarena da. Politikaren aldetik Maule frantziarra da. Hauteskunde presidentzialen emaitzak ikusirik, bi heren ezkerrean dago eta heren bat baino gehixeago eskuintean. Maule “langile” herria da, eta honek euskal nortasunari leku gutxi gutxi uzten dio. Maulen bi kartier nagusi dira, Maule gainekoa, etxe txikiak eta langileria dago. Jaietako gaualdi batean hala Mariatxiak nola Jotak izaten dira. Maule hirian burgesia txikia dago, lantegi tipien buruak. Badago beste zati bat laboraria, dozena bat etxalde daude, euskaldunak izatez, baina ez espirituz. Beste zati bat, Basaburutik, Atharratzetik eta herri auzoetatik jinekako jendea da, euskaldunak dira. Baina Maulen sortzez ez dago euskaldunik.

Auzapeza zara 2008tik. Egiguzu zure esperientziaren bilana Herriko Etxean?

Jada entseatu nuen Herriko Etxean sartzen beste hiru aldiz –1999an abertzale zerrenda batean–, hau izan da laugarrena. Beste bietan ez nuen aitzina egin, bloke politiko azkarak izan genituen. 2002an ni bakarrik pasa nintzen gure zerrendatik; 2008an, gure zerrenda osoa pasa zen eta bestetik bat bera ere. Udalbatzan 23 gara, talde berekoak, baina hobeto izango zen oposiziotik batzuk egon balira. Heldu den legealdian aldatuko omen da legea, eta aurkezten diren zerrenda guztietatik udalbatzan sartzea espero dut.

Ongi moldatzen zarete udalbatzan?

Egoera ez da gaiztoa. Boterean gu gara bakarrik, baina kudeatzeko unean ere bakarrik gara, eta hori problema da. Oposiziorik ez izatea ez da ona, beste zerrendatik bizpahiru jende balira, guretako, enetako hasteko, errazago izango zen. Nire politikaren kontzeptioa –baita Artzainak lantegian ere– lana delegatzen dut,

nik bidea eta helburua erakusten ditut eta jendeak ahal bezala egin dezala.

23 hautetsi horien artean badira denetarik, ez dira denak buru edo buruorde. Gizartearen bezala. Hiru urte hauetan gure izaera ezagutu dugu, gure urguilua eta eskasiak agertu dira, eta ikasi dugu gure artean moldatzen. Une gaiztoenak pasa dira, hori eta hura nola kexatzen den ikusi dugu, bestea bazterturik joan da eta itzuli da. Beste hiru urtetarako bidea markatu dugu. Orain aho batez bozkatzeko ditugu proiektuak, denak ari gara ildo berean.

Zein dira arrangura handienak?

Ez dugu biga, baño dago: herri hau dinamizatzea jende kopuruz goiti eramateko. Nik besterik ez dut buruan. Gero baditugu horiek aitzina eramateko ideiak, baina helburu bat eta aski konkretua da. Ni lantegi buru izaki, helburuak jartzea maite dut, demografia begiratzeko eta konparatzeko, ez da beste biderik. Jende berria behar da lanean kausitzeko, urratsak emateko prest dagoena.

Non ikusten dituzu trabak? Indarrak berriz?

Trabak denetan. Herri bakoitzak baditu bereak. Eman dezagun, segurtasun aldetik ongi bizi gara Zuberoan, ene autoa bulego aitzinean daukat gakotu gabe, karrikan, momentuz bizi gaitezke horrela. Azpiegitura handietatik urrun bizi gara. Guk ez dugu ez autobiderik ez AHT hemendik pasatzen ikusten, ez dugu aireportuen arrangurarik. Aldiz, AHTk zeharkatu duten lurraldetan jendearen sexuak konprenitzen ditugu, guretzat maleruski problema horiek urrun dira. Alta, guk azpiegituren beharra dugu, ziur. Zuberoan badaude indarrak, baina alde berera bultzatu behar ditugu. Zentzu horretan nortasuna, enetzat euskaldun izatea, indar bat da, gure hizkuntza eta euskaldun agertzea, gure buruaz ahalke ez izatea, hori da indarra. Beste indar bat da lantegia. Lantegi asko dira oraindik ere Maulen: 40 lantegi industrialak. Lantegi txikitik 1.000 lanpostu dira. Egitasmo azkarra dutenak, goiti doazenak. Ene definizioan Zuberoan ekoizten dena eta kanpo saltzen dena –Frantzia nahiz munduan– hemengoa da. 40 lantegi horietan indar handiena duenak 100 langile ditu, kanpoko kapitalaz egina. Gaineratiko guztiak zuberotarren esku dago. Eta kasu honetan zuberotarra ez da soilik euskalduna dena, Zuberoan lantegia plantatu, edota lan eta bizi dena ere zuberotarra da.

Lana delegatzea maite duzu, demokrazia parte-hartzailea, naski.

Bai. Ezagutzen nauenak badaki hori, hori bizi dut. Artzainak lantegian ari naiz goizetan, udaletxean eta Herrien

Elkargoan arrastietan. Badakizu, teknologia berriei esker, –emailak, SMSak– lotzen ahal da jendearekin. Artzainak-en 50 langile gara, 30 milioi euroko negozioak egiten ditugu. Sei lantegi txiki ari dira, bakoitzak badu bere burua. Nire lana horien kontrola eramatea da, ez naiz bakarra. Hilean behin horiek guztiak nola doaz jakiten dut. Ez naiz ehuneko ehunetan aritzen, ezin dut eta ez nuke nahi ahal izanez ere.

“Aurore Martinen inguruan ez da eztabaidarik sortu, ezohikoa izan da, exotikoa”

Atharratzeko kantonamenduan bozak izan dira berriki. Arnaud Villeneuve sozialista da kontseilari berria, Mixel Arancete zentristaren orde. Zer iritzi duzu?

Kantonamenduan hamasei udalerri dira. Arnaud Villeneuvek sozialisten sostengua ukan du, baina bera 75 urteko gizona eta langabezia balitz, sozialista izanik ere, ez zen hautatua izango. 37 urte ditu. Zahar Etxearen zuzendaria da, gaztea eta dinamikoa, ideia argiak ditu. Horregatik bozkatu du jendeak. Erran nahi dut: politika nazionalak zer eragin du horretan? Baluke zati bat, baina jendeak bozkatu du dinamismoa duen jendea behar duelako. Jendeak elkar ezagutzen dugu eta pertsona bozkutzen du. Alderdiak ere badu garrantzia, naski, baina gehiago bozak gero eta goragokoak direlarik.

Abertzaleek bozen %7,93 ukan dute; 156 boz bildu dute.

Gaitz da abertzaleentzat. Jendeak badaki Zuberoa Euskal Herriko bazter batean dagoela. Euskalgintza tipiagoa da mugetan. Guk Francorik ez dugu ukan, ez dugu Hegoaldeko kanpoko jendetzaren etorrera handi-handia; bon, ukan dugu hale-re. Baina bereziki Frantziako politika bizi izan dugu, ez dugu Francoren errepresio gaitza ukan, baina finean eta funtsean, guk jasan duguna gaiztoagoa izan da. Egun ez dugu euskara ofizializatua. Ezin badugu hori ukan, euskara hilko da.

Euroaginduaren aurkako zure jarrera ezaguna da. Nola bizi izan duzu posizionamendua Herriko Etxean?

Bada urte bat eta erdi Aurore Martinen ahizpa udaletxera heldu zela: sostengatuko nuela erran nion. Aurore sortzez mauletarra duzu, baina Mauleko auzapezak duen pisua ez da hain handia. Izenpetu dut euroaginduaren aurka, jendeak entzun nau. Mauleko auzapeza naiz, baina ez naiz mintzatu ene taldearen izenean. Hasteko arazoaz mintzatu dugu. Arazoa lehenik ulertu behar baita, jendeak ez ditu gako guztiak berehala bere egiten. Kasua justiziatik pasatzen baita, lege bat da, batzuk legalistak dira. Eztabaida sortu da, erran genezake gure taldearen heren bat alde atera dela, beste batek ez daki, eta beste bat ez dago alde. Hemengo demokrazia hola da.

Aurore Martin EHBaiko hautagi izateak zerbait berezirik ekarri al du?

Ez du eztabaidarik sortu, ez dut uste... Atharratzen izan da, ondoko



LUARKITEKTOOK
 hirigintza
 hirigintza aholkularitza
 udal planak
 urbanizazioak
 periferiazioak
 balorazioak
 etxebizitzaren proiektuak
 birgaitzeak
 barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
 Tel 948 13 26 97
 lua@luark.com



SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
 edozein gidabaimenarako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es



Tolosako Babarruna

Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

kantonamenduan. Ezohikoa izan da, exotikoa, azpimarragarria... Baina, horrek ez du bozik ematen ez kentzen.

PSko Georges Labazée da departamenduko presidente berria. Eskuine-tik ezkerrera aldatu da Kontseilu Nagusia. Aro berri bat heldu dela aipatu da, aldaketa historikoa... Zer-bait aldatuko al du horrek?

Eskuin eta esker beti izanen da Zuberoan. Ez dakit aldaketarik izanen den... ikusiko. Guk gauza berriak proposatzen baditugu, dinamikoak, enbeia baldin badugu, bai. Finantziarioa etorriko da guk proiektuak proposatzen baditugu. Baina ez da pentsatu behar Pauek hala Baionak lagunduko gaituztenik, guk egin behar dugu gure erdua landu eta elikatu. Kanpotik ez da laguntza etorriko berez.

Zerk alda dezake Zuberoaren geroa, edo ziurtatu bederen?

Nik gure nortasuna aipatzen dut. Hori da lehen-lehenik landu behar dugun parametroa. Zuberoako jendea ez da ohartzen, baina frantximenten presioa hor da, telebista bidez, emek-emeki, frantsesten ari da probintzia tipi hau. Adibidez, Paue aipatzen da, baina guk hurbilago dugu Oloron [Oloroe]. Administratiboki Zuberoa Oloroni lotu da. Garapen Kontseiluarekin lan bat abiatu dugu aspaldi, Baionan. Zerbitzu publikoei buruzko lana da: azpiegiturak, hizkuntza, urak... Lurren espekulazioaren aurka joateko egitura bat sortu dugu Ipar Euskal Herrian, oraingo karta administratiboa hautsiz, Zuberoa Euskal Herrian kokatu nahi duena administratiboki. Zuberoa ari da indartzen. Adibidez, gu osasungintzan Paueri lotuak gara, lan bat egiten dugu jendeak nortasuna atxiki dezan, jakinik euskalduna dela. Aldi berean, osasunaren arloa ekonomikoki dirua eta bizibide bat baita. Zuberoa berrantolatzeke eztabaida badago. Parisek Herrien Elkargoak sustatu nahi ditu. Gu Baxenabarreko elkargoarekin lotu gintezke, ni Maulleko auzapeza naiz eta Herrien Elkargoan lehendakari orde. Agian egunen batez Olorongo suprefektura zapartatuko da. Pentsatzen dut ene bizitzan ikusiko dudala —eta ez



“Uste dut, arrazionalizatu behar dela, eta azkenik, Zuberoak nahi badu administratiboki beste euskal lurraldeei lotu, utziko diotela”.

30 urte buruan— Zuberoa legalki Euskal Herriari lotua, baita administratiboki ere.

Kantonamenduak desagertu eta Herrien Kontseilua delako egitura berria sortu liteke beraz.

Zuberoan bi kantonamendu dira, Atharratze eta Maule. Egitura aldatzen bada bakarra izanen da, bietatik bat sortuko da. Zuberoa bere osotasunean egonen litzateke. Herri Elkargoa —13.000 bizizale— hein onekoa izan liteke, baita Donapaleuri lotua izan ere, guk gogor atxikiko dugu horrela izan dadin.

Frantziako egituraketa politiko administratiboa alda liteke geroan...

Frantziak krisia bizi du. Espainiak bizi duen krisia etorriko zaio beharbada. Uste dut, arrazionalizatu behar dela, eta azkenik, Zuberoak nahi badu administratiboki beste euskal lurraldeei lotu, utziko diotela.

“Nik gure nortasuna aipatzen dut. Hori da lehen-lehenik landu behar dugun parametroa”

Nola igurikatzen dituzu heldu den urteko presidentziarako bozak?

Presidentzialak hauteskunde oso politikoak dira, jendeak politikoki bozkatzeko du, alderdi bat bozkatzeko da. Baina hori Frantzia, Espainian

edo Portugalen ere gertatzen da. Barne politikak eragiten du, baina kanpotik presio gaitza da, dirugintza aldetik hasteko. Orduan, boterean izan nahi duenak sosa behar du. Politikan, ene ustez, kudeaketa behar da eta demagogia utzi.

Sarkozyren alternatiba ikusten duzu ezkerretik?

Bai, eman daiteke. Izan ere, presidentea bozen ehuneko 48 eta 52 artean erabakitzen da. Aldea ez da handia, eta Espainiako edo AEBetako politikan, adibidez, berdin.

François Bayrou hautagai ikusten duzu, zentro aldetik?

Aurkeztuko da naski, baina ez du talderik boterea kudeatzeko.

FNko Marine Le Pen? ...

Le Penek egin dezake goiti. Noraino? Ekonomia areago gaiztotzen bada... hori da arazoa, funtsean hori da arazoa, eta kasu.

(...)

Guk beste problemak ditugu, ez ditugu politikaren giderrak eskura, ez guztiak, behintzat. Zorrik ez badugu zerbaite gehiago egin dezakegu, baina zorrak egiten baditugu, bankuarekin bizitu behar dugu, eta tinkatzen bagaitu beste batengana joan, eta hala ere berdin. ■

argia.com Solaskidearen aburuak. Gaindegiaz eta Udalbiltzari buruz.



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Euskal Herriko udalen izendegia

Udalen izenak
arau bihurtuta

2011n Euskaltzaindiak *Euskal Herriko udalen izendegia* argitaratu du. Izen bereko argitalpena egin zuen 1979an. Zerrenda berrituak arau izaera du, 1979koak ez bezala. Beste garai batzuk ziren haiek, euskararen normalizazioa hasi besterik ez zen egin.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkia: Pedro Tapias / Baskimagen

MIKEL GORROTXATEGIK, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkariak, eman dizkigu *Euskal Herriko udalen izendegiaren* inguruko argibideak. Atera berri den argitalpenaz galdetu diogu eta 1978. urtera egin dugu atzera. Diktadura bukatuta, udalek euskarazko izenak ofizialtzeari ekin zioten. 1979. urtean argitaratu zuen Euskaltzaindiak udalen izendegiaren lehen liburua. 2011ko udalen izenen zerrendak arau izaera du, ordukoak ez bezala. Gorrotxategik esan digunez, “ez dakit orduko zerrenda, araua, gomendioa, edo zer zen. 1978ko testuinguruan kokatu behar dugu, diktadura bukatu berritan, Euskaltzaindiak zerbitzua eman nahi zien herritarrei eta udalei lagundu jakin zezaten nola egin ofizial udalaren euskarazko izena”.

Udal batzuek berehala hartu zituzten euskarazko izen ofizialak, beste batzuk patxadatsuago ibili ziren, eta beste batzuek, Mikel Gorrotxategiren hitzetan, oso patxadatsu hartu zuten kontua. Lehen kolpeko lan horrek ordea, ez du esan nahi 2011ra arte Onomastika Batzordea geldirik egon denik. 30 urte hauetan udalek eskaerak egiten jarraitu dute, alegia, euren udalaren euskarazko izenaz zalan-tzak izan dituztenean, EUDELein izan duten hitzarmenari esker, Euskaltzaindiara jo dute. Euskaltzaindiak eskaera aztertu eta iritzia ematen die. Udalak onar dezake



1979ko izendegian Billabona zuen izena argazkiko herriak, 2011koaren arabera Villabona-Amasa.

akademiararen proposamena edo ez. Sarri gertatzen dena da udalak berak informazio gehiago eskatzea, hau da, Euskaltzaindiari herri horren izenaren jatorria aztertzen segitzeko eskatzea, erabaki definitiboa hartu aurretik. Euskal Autonomia Erkidegoko herri askok mota horretako eskaerak egin ditu urte hauetan zehar. Nafarroaren kasuan, hizkuntz eremuen banaketa zela-eta, Nafarroako Gobernuak berak eskatu zion Euskaltzaindiari udal guztien euskarazko izenak berraztertzea. Gorrotxategik dioen moduan, 30 urte hauetan izendegia

bizirik egon da.

Akademikak zeren arabera aldatzen-moldatzen ditu udal izenak? Euskal idazleek nola idatzi duten, jendeak nola ahoskatzen duen eta dokumentuetan zer agertzen den ikusita, euskarazko idazkera zuzen eta tradizionala izatea da beharrezko baldintza. Beste kontu bat da, ondo idatziak izan arren, adibidez, bi izenen artean bat aukeratu behar denean, alegia, Arrasate ala Mondragoe erabili. Bada, horrelakoetan Euskaltzaindiak herritarren artean izen bakoitzak zenbaterainoko arrakasta duen begiratzen du.

1979tik egin diren hainbat aldaketa

Ikerketa berrien ondorioz zuzendu diren izenak

Izen ofiziala Elburgo/Burgelu Laguardia Bidegoian Villabona	1979ko izena Burgelu Biasteri Bidegoian? (Saiatz) Billabona	Euskal izena Burgu Guardia Bidania(-a)-Goiaz Villabona-Amasa	
Izen ofiziala Adiós Oitz Orbaitzeta Urrotz Alos-Sibas-Abense Berrogain-Laruns	1990eko izena Adiotz Oitz Orbaitzeta, Orbaizta Urrotz Omizegaña Lahüntze	Euskal izena Adios Oiz Orbaizeta Urroz Onizegaine Larüntze	

Egoera bereziko izenak

Izen ofiziala Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Amorebieta-Etxano Artea Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz	1979ko izena Abanto-Zierbena Zornotza (Arrati-)Arteaga Munitibar	Euskal izena Abanto Zornotza Arteaga Munitibar	Euskal izen historikoa Abanto Amorebieta-Etxano Gaztelu-Elexabeitia (-a) Arbatzegi-Gerrikaitz
---	---	---	--

Izen zaharkituak

Izen ofiziala Arrasate/Mondragón Soraluze-Placencia de las Armas	1979ko izena Arrasate=Mondragoe Soraluze=Plaentzia	Euskal izena Arrasate Soraluze	
---	---	---	--

Azkoien ez eta Villabuena bai?

Izendegia berrituta argitaratu da, besteak beste, 1979koa zaharkituta geratu delako. Adibidez, urteetan idazkerari dagozkion erabaki asko hartu dira, eta arau horiek indarrean jarri dira 2011ko udalen izenetan. Aldaketa txikiak dira horiek herritarren bistarako. Gorrotxategiri galdetu diogu ea berarentzat zein izan diren aldaketarik handienak. Deigarrienetakoa Artaxoa izenarena izan omen da, lehen Artaxona zena. Ez ditu ordea, neologismoak ahaztu. Bere garaian asmatutako herri izen batzuk baztertu egin dira, hala nola, Kapanaga, Uriona (geroxeago aipa-

tuko dugun Villabuena), Erripazu-loaga... Dena den, asmatutako izenak ez dira sistematikoki alboratu eta horren adibide da Azkoien izena. XIX. mende amaieran egin dako itzulpena da, baina erabat sustraitua eta onartua. Gorrotxategik gogorarazi du nola hainbat jende kexu den asmatutako euskarazko izenak erabiltzen direlako, eta segidan gaztelaniarekin gauza bera nola gertatzen den azaldu digu. Arabako Errioxan, Villaescuernako herri agintariek gobernadore zibilari eskatu zioten izena aldatzeko, albotxo herrikoek izen horregatik adarra jotzen zietelako. Bada, herriari izena

aldatu zioten eta orain Villabuena da. Beste adibide bat, hau Madrilgoa: Chozas de la Sierra herria. Nonbait herri horretakoa zen apezpiku bat eta ez zen oso dotorea apezpikua “Mendilerroko txaboletan” jaio zela esatea. Beraz, 1960an Soto del Real izena jarri zioten. Gaztelaniazko bi adibide horietan inork ez omen du eskatu jatorrizko izena errekupeatzea. ■

argia.com Udalen euskarazko izenen gaiaz gehiago jakin nahi izanez gero jo Unai Brearen *Herrien izenak ez dira beti legezkoak* artikulura (2228. zenbakia, 2010-05-02)

Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elibiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”



Euskarazko lehen hiztegitxoa lapurtu dute Galizian

CODEx CALIXTINUS lapurtu dute Santiagon, Done Jakueren katedralaren artxibategitik. Kodize hori bost liburuk eta bi gehigarrik osatzen dute eta XII. mendekoa da. Liburu horietako bat Aymeric Picaudek idatzia dela esaten da. Picaudek Done Jakue bidea egin zuen eta hiztegitxoa idatzi zuen euskarazko hainbat hitzekin. Euskarazko lehen hiztegitxoa jasotzen da Codex Calixtinus horretan, baina euskarazko lehen agerpena emiliatar notar glosetan dago.

Filmen erdiak katalanera itzuliko dituzte

KATALUNIako LEGEDIAK hala zioen, zinema aretoetan eskainiko ziren pelikulen erdiek katalanera bikoiztuta edo azpigitulatuta egon beharko zuten lau urteko epean. Zinema industriako handi-mandiek ordean, Hollywoodeko estudio handiek eta multinazionalak, araua ez zutela beteko adierazi zuten. Otsailan adibidez, egun batez zinema aretoen %75a itxi zuten protesta gisa. Bada, multinazionalak eta CIU-ren Gobernuak ados jartzea lortu dute, eta beraz, aurki hasiko dira

pelikulak katalanez azpigitulatuta edo bikoiztuta eskaintzen. Datozen lau urteetan filmen erdia bikoiztu beharko litzatekes. Gaur egun %3ra ez da heltzen bikoiztutako pelikulen kopurua. Plataforma per la llengua elkarteak urte luzez borrokatu du zinema aretoetan pelikulak katalanez ikusteko eskubidearen alde eta arduradunek pozik hartu dute albiste. Dena den, nabarmendu dute ez dela ahaztu behar orain arte katalanak jasan duen diskriminazioa eta lehenbailehen lanean hastea eskatu diete eragileei.

BAHEA

Robert Scarciak esanak www.gipuzkoaeskara.net/webgunea: “Suedian burutu duten azken azterketa batek dioenez, enpresen hizkuntza-politiken eta esportazioetan duten arrakastaren artean kausa-efektu harremana dago. Negozio-sektore berberetan lan egiten duten enpresa suediar, alemaniar eta frantsesengan jartzen badugu arreta, aipatu azterketak adierazten du hainbat hizkuntza hitz egiteko gai diren langileengan inbertsioa egin duten enpresa alemaniarrek, negozioen komunikazioarako giltzarri bakar gisa ingelesa hartu duten enpresa suediarrek baino emaitza hobekiago lortu dituztela. (...)”

Brasiliako Confucio Institutuan txinera ikasten ari den ikasle kopurua ia bikoiztu egin da 2011n. Datua esanguratsua da, Brasilgo hiriburuan Txinako gobernuak finantzatzeko duen Institutuak 2010eko martxoan ireki baitzituen ateak. Brasil eta Txinaren arteko harremanak areagotu diren heinean, Txinarekin lan egiteko mandarina ikasi nahi duten negozio-pertsonen eta ikasle kopuruak gora egin du. Beste era batera esanda, garapen bidean dagoen potentzia hegoamerikararen gero eta negozio mota gehiagok erraldoi asiarrereko bazkideekin komunikatzeko ingelesa erabiliko duenaren ideia okerra zen”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan.com) e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Erreforma fiskala

Azken egunetan hainbat adierazpen entzun dira bankari eta enpresari handiei ezarri beharreko zerga berezietan, EAerako erreforma fiskalaz eta ondarearen gaineko zerga berrezartzeaz. Krisia, orain arte, langileek, pentsionistek eta herri sektoreek soilik ordaindu dutela diote. PSOEek Madrilen eta EAEn dituen gobernuetako buruzagiek egin dituzte gisa horretako zenbait adierazpen. Beraiek, “merkatuek” agintzen dutena bete dute orain arte, hau da, nazioarteko banka handiak agintzen duena, eta euren interesak bermatzeko herritarren bizkar gainean jarri dituzte murrizketa sozial eta ekonomikoak. Ongi etorriak izan bitez adierazpen horiek, baldin eta euren politika sozial eta ekonomikoa zuzentzeko balio badute. Baina beldur gara, adierazpenok ez ote diren izango hauteskunde grinaren ondorioa baizik, PP egiten ari den aurrerakada itzulezinari erantzuteko modu bat.

Bitartean, Bertsara ateratzen ari diren aurrezki kutxek, euren arduradunentzat soldata milioidunak gordetzen dituzte. Rodrigo Rato NDFko gerentzuzendariorde izandakoak eta ministro ohiak presiditzen duen Bankia-ko hiru exekutibo gorenek, guztira 10,1 milioi euro kobratuko dute soldatetan. Gainera, kontseilari izateagatik ere kobratuko dute: 196.000 euro Ratok, 156.000 euro Olivak eta 36.000 euro Verduk. Era berean, batzarretako partaide izateagatik dietak kobratuko dituzte eta beste 1,26 milioi euro gorde dituzte pentsio planentzako. Zenbat kobratuko dute KutxaBank berriaren buruzagiek? Bilbon sortutako bi enpresen adibidea dugu: BBVAko presidenteak urtean 6 milioi euro kobratzen ditu eta 80 milioi euroko pentsioa jasotzeko eskubidea du. Iberdrolako presidenteak 2010ean 12 milioi euro jaso zituen!

Testuinguru honetan, espero izatekoa da Bilduk erreforma fiskal aurrerakoi baten alde hartutako konpromisoa burutzea, ahal duen tokietan bederen, gehien irabazten dutenei karga fiskal handiagoa ezarri eta iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomia-erregimenaren kontra borrokatuz.

Juan Mari Arregi

Otso eta Bildotso artean

ZERK eraman ditu Ezker Batukoak bizi duten egoerara? Arabako Batzar Nagusietan Xabier Agirre buruzagi jeltzalearen hitzak entzutean ez zen —ez da— erraza aipatzen zituen guztiak sinestea. Bereziki alderdi txiki bati buruz ari zelako, bere historia osoan ere gobernu erantzukizun handirik izan ez duena, gogoan dudanagatik bederen ustelkeriak jo izan ez duena... Eta bai, salaketa doinuekin kontu handiarekin jarraitu behar da oraindik ere, salaketa orokorrek modu desegokian inor kolpatu ez dezaten, denborak gaiok bere lekuan jarriko dituelakoan eta horren arabera, gertatutakoak hobeto epaitu ahal izango direlako. Ezin ukatu, alabaina, EBren baitan gertatzen ari direnak ikusita —salaketak, isiluneak, dimisioak, kanporatzeak...— Xabier Agirreren hitzek are eta indar handiago hartzen dutela egunetik egunera.

Zuhurtasuna eta finezia behar da salaketa zehatzak egiteko, baina gizartean klase politikoaz oro har barreiatua dagoen ikusmoldea areagotu besterik ez dute egiten halako gertaerek. Pentsatzen da urte luzeetan erakundeetan ibili den zenbait jende kolokatu egiten dela han-hemenka; diru publikoak gertukoak mesedetzen dituela askotan; sarri-sarri bankuek, enpresa handi zenbaitetik eta boteretsu askok politikari asko beren atzaparretan harrapatuta dituztela; politikari askok xahutzen dutela diru publikoa, neglijentzia asko dagoela hainbat proiektutan... Are okerrago, inpresio orokorra da izeberga ikusten ari garela, horrek esan nahi duen guztiarekin...

ALFREDO PEREZ RUBALCABAREN hautagai diskurtsoa irakurrita ez da harritzekoa politikari eta agintari



munduan izebergaren irudia zentzu txarrean irudikatzea. Azeria oiloarena egiten. Zapateroren gobernuan azken bi agintaldietan inor izan ez balitz, PSOEen azken 20 urteetan ibilbide luzerik izan ez balu... baina bere iraganarekin, marraztu duen etorkizuna ez da posible, ez du sinesgarritasunik. PP garaitzeko behar dena behinik-behin ez. Agian PSOEek gaur egun duen hautagai onena da Rubalcaba, baina egungo PP garaitzeko ez da nahikoa alderdiko Bildotsorik azkarrena izatea, eta are gutxiago herritarrei politikariak beste pasta batekoak direla erakusteko.

Euskal herritarren drama da biolentzia politikoaren orrialdea pasatzeko ordu historiko hori azkenean iritsi denean, Bildotso eta Otso besterik ez zaizkiola geratzen Espainian bakea egiteko. Zein ote hobe gatazka bortitzaren azken hau bideratzeko? PP ala PSOE? Raxoi ala Rubalcaba (barka akats tipografikoa)? Ezker abertzalean urteetan pentsatu izan da norbaitekin negoziatzekotan PPrekin egingo zela, berak ordezkatzeko baitzituen egokien Espainiako botere faktikoak. Pentsatu bai, eta gainera ezin logikarik ukatu pentsamoldeari, baina azkenean negoziazio saiorik arrakastatsuen Zapateroren PSOErekin izan zuen, eta ez duela asko gainera. Bateraguneko epaiketarik ikusi dugun bezala, saio horrek badu zerikusi sakonik egun ezker abertzaleak bizi duen egoerarekin.

Euskal gizartean, oro har, bizi den baikortasun giroaren artean badira ikuspegi ezkorrekoak ere. Horieta batak dira azken hauteskundeetako estatalismo galtzailearena —galtzaile, besterik ez bada Bilduk irabazi duelako—. Emilio Guevara, Carlos Gorriaran, Joseba Arregi, Gorka Maneiro entzutea edo irakurtzea besterik ez dago

haien ikuspegi ezkorraz jabetzeko. Baina badira baita ere ikuspegi ezkorrak abertzaleen artean, eta horietakoa da Txema Monterorena. Joan den asteburuan iritzi artikulua batean azaltzen zuen moduan, ezkor da hemengo gatazkaren bideratzeaz, bere ustez Espainian oso garai gogorrak datozelako ikuspegi ekonomikoetik, eta halakoetan botereak beti bilatu behar duelako barne kohesiorako osagaririk: PPK nazionalismo periferikoak erabiliko litzuke horretarako eta bereziki euskal auzia.

Hausnarketak badu zentzurik, eta azkenean ikusi beharko da ea PPrek baitan zein ikuspegi nagusitzen den: gatazka ez bideratzeko aurreko tesiarekin bat egin dezakeen eskuinta gogorrenarena edo PPrek baitan egon badagoen eskuina moderatua go horrek? Raxoi buru, oraingoz eskuin moderatua hori gailentzen ari dela dirudi, baita euskal gizartean ere. Apurka bada ere, Rubalcaba hasi da bere bitxilorea desegiten eta hor ez dugu konponbide aztarnarik ikusi. Laster izango da Raxoien txanda eta hor ere oso posible da ezer ez ikustea, agerian behintzat. Euskal herritarrentzako ez litzateke jarrerarik txarrena gurekin ezikusia, gurekin egingo balute: "Ale, konpondu zuen artean eta etorri gero, moldatuko gara". Baina sufrimendu asko dugu oraindik esku artean eta hori batekin edo bestearekin konpondu beharko dugula.

PELLO ZUBIRIA

Zure pentsioa afrikarrei ostutako lurrek paga lezakete

Mundu osoko pentsio funtsek metaturik dauzkaten 23 bilioi (“b” hizkiz) dolarretatik, 100.000 milioi inguru lehengaietan inbertitu dituzte. Hauetatik 15.000 milioi nekazaritzarako lurretan. Baserritar txiroei soroak eta estatuei eremu publikoak merke erosteko (lapurtzeko) operazio handiaren protagonista bilakatu dira langileen pentsio funtsak.

EKAINAREN 23AN PARISEN G20ko herrialdeetako Nekazaritza ministroak bildu zirenean, mundu osoko erakundeek sinatutako manifestu hau aurkitu zuten mahai gainean: *Lur lapurretaren kontrako Dakarreko agiria*.

Parisen bildutako agintarien helburua omen zen “ados jartzea nekazal merkaturaren arautzeaz eta prezioen aldakortasuna geldiarazteaz, aurrerantzean elikadura krisiak ekiditeko”. Aldiz, 2011ko udaberrian zehar Dakarreko agiria sinatu duten erakundeek gobernuei eskatzen zieten berehala mozteko mundu osoan burutzen ari den lur lapurreta. Esan gabe doa G20ko agintarien erantzunik ez zutela jaso.

Via Campesinako jendeek eta GRAIN erakunde txikiak (EHNEko buruzagi ezagunak badira tartean) Interneten daukaten www.farmlandgrab.org gunean laburbildu dute landalurren lapurreta zertan den gaur. Milioika hektarea ari dira bereganatzen korporazio handiak eta estatu batzuk –atzerrian, alegia– elikagaiak, energia, mineralak, turismoa eta abar eskuratu edo horien prezioak kontrolatu nahian. Lapurreta bidez bertako herriarrei, laborari eta arratzaleei funtsean, bizi-modua hondatzen zaie, betiko eremuetatik kanporatuta.

Gero eta gatazka eta giza eskubi-

deen urraketa gehiago datoz lur erosketa alimaleko horiei lotuta. Mundu aberatsean ere gertatzen da, Australian dago sekulako polemika atzerriko kapitalek bertako lurak hartu nahi dizkietelako. Bete-beteaz hazten ari direnetan ere bai: Argentinan, Brasilen eta beste. Baina eskandalagarriena herrialde txiroetan jazotzen da, Madagaskarren, Tanzanian, Afrika osoan...

Gaiotan berezitua dagoen Oakland Institut-eko kideek lapurretaren tamaina honela zehaztu dute: azken hiru urteotan Afrikan bakarrik 60 milioi hektarea bereganatu dituzte atzerriarrek. Hots, Frantzia adinako azalera ostu.

Erosle nagusiak zenbait estatu eta korporazio handi dira, inbertsio funts erraldoiak. Jokalari ez-ohikoa ere badira, ordea. John Vidal kazetariak *The Guardian*en azaldu berri du AEBetako unibertsitate handiek milaka hektarea eskuratu dituztela Etiopia, Tanzania, Sudan, Mozambike, Mali eta abarretan. Dirurik ez den lekuan, lurra merke.

GRAIN erakundeak lapurreta joko ez-birtual honetako beste arizale bat aurkeztu digu ekainean: “Pentsio funtsak, lur ebasketan jokalaria garrantzizkoak”. Frantsesez eta ingelesez irakur daiteke, eta laster gaztelaniaz ere ahalko da.

Pentsio funtsek 23 bilioi dolar

Swazilandian aterata dago Interneten *Soberania Alimentaria, Biodiversidad y Cultura* aldizkariak erakusten duen argazki hau. Bertan ageri den bide bazterreko afixak, Swazilandiarra ongietorria emateaz gain, D1 Oils pic enpresaren publizitatea egiten du: “Biodiesela, lurrari deus kostatzen ez zaion erregaia”. Jatropa (*Jatropha curcas*) zuhaitzaren haziak biodiesela egiten dago berezitua D1 Oils pic (oker handirik gabe esan liteke konpainiaren izenak baliatu nahi duela petrolioaren gailurra edo *Oil Peak* fenomenoaren popularitatea). Jatrofaren olioak jan ezin denez, ez omen du lehengaien garestitzean lagunduko, dio konpainiak. Egia zera da: mundu osoan laborantzako lurak edo oihan publikoak bereganatzen dituztela konpainia handiak, batzuetan elikagaiak ekoizteko, besteetan aziendetzako bazka, edo eta biodiesela.

dauzkate bildurik munduan, horietatik 100.000 milioi lehengaietan. Gero eta gehiago ari dira inbertitzen nekazaritzako lurretan.

Pentsio funtsak antolatu dira, teorian, langileen aurrezkiak zaintzeko erretretari begira. Korporazioen kontrol zentralizatutik askatutako laborantza defendatzen duten erakundeek garrantzia berezia ikusten diete funts horiei, lur lapurretari dagokionean: langileen diruz osatuta daudenez, bereziki sentikorrak bihurtzen ditu mugimendu sozialek eta sindikatuak antolatutako kanpainetik.

Ez omen zuen ematen lurak

Herrialde aberatsetan lanpostu txukun baten jabe izan eta aurrezteko gai diren herritar askok dauka diru bat ezarrita pentsio funtsetan. Zenbait lanpostutan kasik derrigortuta daude horretara, gainera. Langileen diruok, ordea, beren, sindikatuen eta Gobernuen izenean konpainia pribatuek darabiltzate.

Japonia, Norvegia, Holanda, Hego Korea eta AEBetako gobernuekin daude lotuta munduko funts handienak. Japoniako Gobernuaren pentsio funtsak berak 1,31 bilioi dolar dauzka, Norvegiakoarenak 0,47 bilioi, ABP holandarrak 0,3 bilioi... eta hurrengo 17etako bakoitzak 100.000 milioi baino haboro.



2008tik hona krisiak gogor kolpatu ditu funtsok, azken urteotan erretratar heldu direnek beren sosetan nabaritu dutenez. Beren *portfolioak* berrantolatzen hasita, pentsio funtsak lur erosketan ikusi dute etorkizun oparoko inbertsioarena.

Lehengai gehienak bihurtu dira, oro har, inbertsiogai irrikagarriak. Lurak baditu ezaugarri bereziak. Planetako populazioa hazi ahala, jaki eskaria eten gabe handituko da. Lurak merke daude bazter askotan, Australian bezala Sudanen, Uruguain, Errusian, Zambian edo Brasilen. Epe luzera lurroek ere garestitzen joango dira, baina bitartean horietan bildutako uzteak edo hazitako aziendek dirua emanen dute, oso ondo datorren tesoreria. “Zure

eskuetan erabili behar bazenitu 30 urte barru langileei itzuli beharko dizkiezun diruak, zuk ere ikusiko zenioke logika alorretan inbertitzeari”, dio ulerkor GRAINEk.

Mundu osoan hamar urtean 6.000 milioi dolarretik 320.000 milioira igo dira ingelesez *commodity* deitu lehengaietan egindako inbertsioak, esan dugunez 100.000 milioi pentsio funtsenak. Zenbait adituk dio inbertsiook %10 eta baita %20ko etekinak ere lortzen dituztela. Eta sosak sosari egiten dio dei.

Baserri lurretan inbertitzeko biltzar eta kongresuak ugaritu dira azken hiru urteotan, ia beti luxuzko hoteletan, izan Zurichen edo Singaporen, Londresen bezala New Yorken. Maiatzean azken hiri honetako

Waldorf Astoria hotelean, Manhattanen, 600 inbertsore bildu zituen Global Aginvesting Conference izenekoak. Honen webgunearen eskuneko aldean ageri diren “urrezko esponsorrei” begiratu besterik ez dago sektore honen abiadaz ohartzeko. Hor bildutakoek 10.800 milioi dolar ordezkatzan zituzten, laster 18.000rainoko jauzia egiteko itxaropenarekin. Bildutakoen hiritik bat pentsio fondoak ziren.

Gaur pentsio fondoak %1-%3 dago jarrita lurretan. 2015erako %5era igoko direla kalkulatzen dute. Ehuneko txikiak dira... baina sekulako diru pila baitako portzentaje txikiak ere kopuru handiak osatzen dituzte. Hona adibide batzuk, GRAINEk emanak.

Suediako AP2 funtsak 500 milioi dolar dauzka lurretan inbertituak, Holandako APG funtsak 1.400 milioi dolar, Kaliforniako funtzionarien funtsak 1.200 milioi. Eta horrela, abar luzea. Nekazariei lurra onean edo txarrean kentzen hasita, funts horien portzentaje kaxkar batek sekulako indarra dauka.

Ez da erraza izango joera geldiaraztea. Pentsio funtsen arduradunei nola esan uko egiteko inbertsio aukera eder bati? Baina Dakarreko agiria sinatu dutenek eragin nahi dute sindikatuen, langileen ongizateaz okupatzen diren erakundeak, erretiro kutxen administratzaileen eta agintari politikoen artean. GRAIN erakundearen hitzetan, “pentsioak non inbertitu erabakitzen ari diren arduradunak konbentzitu behar ditugu nekazaritzako lurretan eta produktu oinarritzako inbertitzeari uko egin beharraz”. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Garbine Ubeda Goikoetxea

Musikaren neutraltasunaz

N

euromarketinak nigan duen efektua neurtzen ari nintzen; beharrezko zitzaidanaren eta desio nuenaren arteko arrazoizko oreka bilatzen, erostarazteko teknika berri hauek atzaparrak ondo luzatuta izaten dituzten tenplu horietariko batean (Urbil merkataritza zentroan). Ordu bata eta erdiak aldera heldu nintzen –bazkaltzeko garaian, nahi-tara–, jende motroiloak saiheste aldera. Eta hipermerkatuko ate detektatzaileak pasatu besterik ez nituen egin, lehen apalategiko produktuei azaleko begiratu besterik ez nien eman, oztoporik jasangaitzenaz ohartu nintzenen: Alejandro Sanz marruka eta lantuka ari zitzaidan bozgorailuetatik. Hori oilo-ipurdia.

Etorri zetorkidanaz ohartuta –aski gora jarrita zegoen bolumena–, korridoreak zeharkatzen hasi nintzen ahalik eta lasterren, pasieran ikusten nituen jaki eta osagarriak arrapaladan hartzen, saski gurpildun gorria tiraka nekarrela. Ospa egin nahi nuen handik.

Kutxa erregistratzailerara heldu nintzenerako, sarritan konprobatutakoa, jakin banekiena, betikoa, baieztatu nuen berriro ere. Erosketarekin batera, Espainiako pop salduena entzutera behartuko ninduela Eroskik. Gustatu ala ez, gaztelarazko *hit-parade* osoa belarriaratu zidatela. Ez zidatela segundo erdiko treguarik ere emango, ezta disimulatzeko ere. Ezta Beyonce-ren azken diskoaz torturatzeko ere.

Erosketa ordaindu eta ihes egingo nukeen, nire baitarako marmar apur bat egin eta hurrengora arte korrika urrundu, baina ikur hura ikusi nuen bat-batean, ziurtagiri sonatua, hipermerkatuko informazio-txabolatxotik pasatzean: “Bai euskarari”.

Agerkundera iruditu zitzaidan, egia esan. Haren inspirazioz otu zitzaizkidan galderak, nire oinak bezala, estropezu egiten hasi ziren, elkarrekin kateatzen: neurtu al



DANI BLANCO

liteke saltoki jakin batek hizkuntzarekiko duen konpromisoa bere akustika orokorra kontuan hartu gabe? Ateak zabaltzen dituztenetik hasi eta argiak itzaltzen dituzten arte, gutxienez hamabi orduz, bozgorailuak etengabe martxan izan ohi direla kontuan hartuta, zer hizkuntza, zer giro, zer paisaia, zer babes ari dira sustatzen beti eta salbuespenik gabe gaztelaniaz kantatutako abestiak –eta bolumen horretan– irradiatzen ari badira? Ingurumenarekiko errespetuz jokatzeko ari al dira batere biodegradagarriak ez diren abesti likatsu horiek (eta besterik ez) promozionatzean? Ongi merezia al dute “Bai euskarari” ziurtagiria?

Tira, ba egun hartan gaiztotu egin nintzen derrepentean. Barkatu. Poltsak lurrean utzi, erakusmahaira hurbildu eta erreklamazio-orria eskatunio etxeko uniformeaz jantzita zegoen andereari. Intoxikazioaz mintzatu nintzen oharraren. Kexatu egin nintzen dezibelio horietan sartu zidaten muskulubarneko dosiak agente patogenoak besterik ez zituelako. Eta demanda egin nien, urteotan egin ditudan bisitetan –eta ehunka izan dira– sekula euskarazko abesti bakar bat ere entzun ez dudalako, Olentzero egunekoa salbuespen


Pare bat egunera, bezeroaren arretaz arduratzen den neska batek deitu zidan. Arrapataka aritu zitzaidan, urduri, azkarki. Lehen hitzetik arrazoiak eman ostean, denen gustua asmatzea zaila dela eta, erosotasunez, zentro guztientzat sistema bat eta bera jartzea pentsatu zutela arrazoitu zidan. Eta dauden aukeren artean haxe iruditu zitzaizela neutroa, esan nahi baita, gaztelarazko musika besterik eskaintzen ez duen hari musikal hau. Baina baietz, arrazoi nuela, eta esan beharreko tokian esango zuela...

Hilabetea joan da geroztik. Kexak kexa, arrazoiak arrazoi, Eroskiren akustika politikak beti bezain ‘neutro’ jarraitzen du. ■

Kexatu egin nintzen dezibelio horietan sartu zidaten muskulubarneko dosiak agente patogenoak besterik ez zituelako. Eta demanda egin nien, urteotan egin ditudan bisitetan –eta ehunka izan dira– sekula euskarazko abesti bakar bat ere entzun ez dudalako, Olentzero egunekoa salbuespen

ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

www.nekatur.net/ondarre

1



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2283. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)

EKAINBERRI

- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Eneko Bidegain Aire (Hendaia)
- Ederne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Txus San Miguel Jorajuria (Donostia)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oiartzun)
- Josu Belar Unamuno (Arrasate)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Auro Ansoregi Altzibar (Mutriku)
- Ederne San Martin Larrañaga (Eibar)
- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)

KHERAU munduan ortozik CDA

- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Aratz Ortiz De Elgea Azazeta (Gasteiz)
- Nekane Ariz Eskisabel (Usurbil)
- Fagor Industrial Liburutegia (Oñati)
- Anzizar Taberna Isabel Garin Aldasoro (Beasain)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

XABIER LETE GOGOAN

KANTALDIK

ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
ERRAMUN MARTIKORENA
AMAIA ZUBIRIA
PETTI
JOXAN ARTZE


Abuztuaren 11n
ARANTZAZUKO SANTUTEGIAN
19:00etan

Antolatzailea:



arantzazuGaur
INICIATIVA MUSEAL DE PROMOCIÓN

Babeslea:



Sarrerak salgai: Musika Hamabostaldiko bulegoa
Oñatiko turismo bulegoa

ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
AMAIA ZUBIRIA
TXOMIN ARTOLA
JABIER MUGURUZA
XABIER EUZKITZE
PETTI

Abuztuaren 6an
HONDARRIBIKO
GIPUZKOA PLAZAN
22:30etan

Antolatzailea:

